

Berrigara

Urteko lehen elur-malutak

Herri ingurua zuri-zuri

Martxoaren 31ra arte,
zure ibilgailuan egindako
tailer-lan bakoitzeko
doan garbituko
dizugu autoa



TXARTEL HONEKIN
garbiketa bat
DOAN

MECA BERGARA
Amillaga 5. Bergara
Tf. 943 76 40 68

**MECA
BERGARA**

Amillaga 5
BERGARA
Tf. 943 76 40 68



BONARDI Bilduma



3.400 Pta. bakarrik

60 URTE tik gora



Armazoaia
+
Kristala

Lente zurientzako
eskaintza
±4ESF±2ZIL

8.700*
Pta. tik aurrera

LENTE PROGRESIBOAK

19.500 Pta. tik aurrera



**Multiofertas
MULTIOPTICAS**

6 hilerako packa
UKIPEN LENTEAK

14.900
Pta. bakarrik

Eta gainera lenteentzako
kutxatila eta motxila bat opari



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943 761575
20570 **BERGARA**

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 792995
20500 **ARRASATE**

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 889988
20240 **ORDIZIA**



GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa

BERGARA

Tf.: 76 36 42
Faxa: 943 76 54 25
San Juan auzoa z/g
20570 Bergara



**PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA**

- Elkarte europarrera
- +
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniarra eta
- Hungariara



Mende bukaera itxaropentsua

Ane Miren Lizarralde / Kazetaria

Urte berrian sartu gara eta hurbilago dugu mende aldaketa. Hamaika hilabete baino ez dira falta momentu horretara iristeko, baina gutxi dela ematen baldin badu ere, hilabete horiek luzeak eta gogorak izango diren ustea dut. Lehendakariak, izendatu berri den Juan Jose Ibarretxek, esan berri du orain hasi den legealdia bakearen legealdia bihurtu nahi duela. Ez dugu besterik nahi, eta *Bikain* emango genioke bere asmoa betetzen baldin badu, baina azken egunotan ikusten ari garen eztabaida ikusita, jakin badakigu ez duela bidea bate-re erraza izango.

Lizarra-Garazi izeneko akordioa sinatu zenean, ETak su-etena iragarri zuenean, bi alderdi nazionalistak gobernatzeko akordioa lortu zutenean,

eta Euskal Herritarrok-ek prozesu honetan hartu zuen jarrera ikustean, herri honetako gehiengoa poztu egin zen, eta itxaropenez hartu zuen prozesu guztia. Argi dago ahalegin guztiak egin

“Kale borrokaren azkenengo erasoak argudioak besterik ez dizkie eman betikoei.

Erabili dituzten hitzak gutxi ez direla, sortu nahi duten egoera korapilatsua borobiltzeko horra hor batere laguntzen ez duten filtrazioak, enpresariei bidalitako kartak...”

behar direla biolentzia gure gizartetik desagertu dadin, baina oztopo asko gainditu beharko dira eta, aurrerantzean, suposatzen dut askotan irudituko zaigula gure itxaropenak bertan behera gelditzen direla.

Kale borrokaren azkenengo erasoak argudioak besterik ez dizkie eman betikoei eta ondo aprobetxatu dituzte. Erabili dituzten hitzak gutxi ez direla, sortu nahi duten egoera korapilatsua borobiltzeko horra hor batere laguntzen ez duten filtrazioak, enpresariei bidalitako kartak... Egia da bide horretatik ezin dela aurrera egin, eta jarrera garbia exijitu behar dela, baina Mayor Oreja “and company” egiten ari diren kanpaina ez da askoz garbiagoa. Ikusiko dugu zer datorkigun, eta bitartean urte honen hasieran, urte berri on. **B**

barruan




Eric Toussaint

Idazle eta irakasle belgikarra

“Herrialde aberatsak ez daude Hirugarren Munduari zorra barkatzeko gertu”

8.



Jon Sanchez

Futbolaria

“Euskadiko selekzioarekin jokatu izana oso esperientzia aberasgarria izan da”

21.



Mikel Fernandez

Lagunak futbito elkartekoa

“Zenbait kasutan, futbitoan neskek mutilen pareko maila erakusten dute”

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1741. Urtarrilaren 12an Santa Marinaren erretaula berria, animen erretaula, egiteko erabakia hartu zuen bertako Animen Kofradiak. Garai berean ari ziren egiten erretaula nagusia ere. 1743rako bukatuta zeuden bi obrak.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 8

18-23-34-38-46-48 (osag.8/itz.5)

Astelehena 11

5-17-23-29-36-44 (osag 40/itz.0)

Martitzena 12

3-8-9-11-34-38 (osag.35/itz.6)

Eguaztena 13

8-11-13-30-34-45 (osag.1/itz.5)

PRIMITIVA

Zapatua 9

1-6-16-28-38-43 (osag.24/itz.4)

Domeka 10 Sarizarra

16-18-30-31-37-44 (osag.46/itz.8)

ONCE

Eguakitza 8: 60.489 (150 seriea)

Astelehena 11: 38.164

Martitzena 12: 99.873

Eguaztena 13: 70.322

BESTE BATZUK

Bedelkarreko erosketa-baleak:

1. 500.000 PTA: 1.828.

2. 300.000 PTA: 122.811

3. 200.000 PTA: 90.404.

Lokatza, Gabonetako zozketa:

1. Mendiko bizikleta: 1.856

2. Bi lagunendako afaria: 7.308

Amnistiaren aldeko batzordea:

1. Asteburua nekazal etxean: 930

2. Erreal ikuseko 2 sarrera: 1.714

3. Eskiatzeko 4 forfait: 3.962

Etxeberrira erlojutegiko

erosketa-baleak:

1. 200.000 PTA: 3.981

2. 100.000 PTA: 0489

Irudi erlojutegia:

Emakumezkoendako

urrezko erlojua: 3.981

Mariaren Lagundia. Ikasketa

bidaiaren aldeko zozketa:

Bi lagunendako afaria: 1.327

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatuan egunak aurrera egin ahala hodeiak ugaritzen joango dira eta iluntzerako euria egin dezake. Domekan, zeruak erabat estalita agertuko zaizkigu eta euria egingo du; 800 metrotik gora elurra. Tenperaturak behera egingo du.

Ilargiaren aldiak



Ilbehera: urtarrilak 9



Ilberri: urtarrilak 17



Ilgora: urtarrilak 24



Ilbete: urtarrilak 31

Eguzkia

Domeka, urtarrilak 17



Sortu: 08:39



Gorde: 18:18

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 7	18	1	0,1
Eguakitza 8	10	2	12,2
Zapatua 9	8	6	31,4
Domeka 10	7	5	11,9
Astelehena 11	5	1	8,5
Martitzena 12	8	1	1,3
Eguaztena 13	6	1	5,1

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Anka geldixan

Hankak mugitu gabe, boletan edo beste zerbaitetan (jokatu).
- Anka geldixan irabaziko lostake harek neri.

Baita, abiadarik hartu gabe.

- Anka geldixan iru metroko saltua eitten zeban.



hamaika ikusteko jaio ginen!

Ordezko belarriak

"Advanced Tissue Sciencies" zentru iparramerikarreko zientzilariek giza belarri bat sortzea lortu dute laborategian. Haur jaioberri baten prepuzioko zelula bat erabili dute, era horretan ehuna haziarazi ahal izateko. Gainera, dagoeneko, badihardute giza gorputzarendako beste ordezko atal batzuk prestatzen, hala nola, kartilagoak, hezurak eta odol-basoak.

Farmaziak

Eguakitza 15:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 66

Zapatua 16:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 62

Domeka 17:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 62

Astelehena 18:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Martitzena 19:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Eguaztena 20:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Eguena 21:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 66

Ogia

Domeka 17: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak

DYA 943 78 71 10

Gurutze Gorria 943 76 55 11

Larrialdiak 943 46 11 11

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 44

Anbulantzia 943 55 46 10

Udaltzaingoa 943 77 91 10

Ertzaintza 943 78 50 44

Suhiltzaileak 943 78 20 10

Osasun Etxea 943 76 24 44

Arrasateko ospitala 943 78 50 10

Asepeyo 943 76 16 44

Pakea 943 76 10 44

Angiozarko medikua 943 78 50 10

Antzuolako medikua 943 76 50 10

GARRAIOAK

Euskotren 943 46 01 10

PESA 902 10 10 10

Taxiak 943 76 10 10

RENFE 943 28 38 10

UDALA

Udaletxea 943 77 91 10

Udal Artxiboa 943 77 91 10

Igerilekuak 943 76 20 10

Kultur Etxea 943 77 91 10

Liburutegia 943 77 91 10

Mizpirualde Egoitza 943 76 10 10

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 10 10

Erregistroa 943 76 10 10

Jardun 943 76 10 10

Jubilatuaren Etxea 943 76 10 10

Postetxea 943 76 10 10

zorion agurrak



Irati Murgiondo
Urtarrilaren 15ean
urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Ane Morillas
Urtarrilaren 15ean
7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Iker Unamuno
Urtarrilaren 19an
15 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Luis M. Unamuno
Urtarrilaren 18an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Marina Rodriguez
artzuolarak, urtarri-
laren 18an urtebete-
tzea. Urte askotara-
ko! Etxeokak.



Unai Etxeberria
Urtarrilaren 19an
21 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



**Maria Angeles
Martinez**
9an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Julen
Gorrotategi**
18an 9 urte. Urte
askotarako! Mikel,
Andoni eta etxeokak.



Ibai Zabalo
Urtarrilaren 11n
8 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Leire Bolaños
Urtarrilaren 17an
18 urte. Urte
askotarako! Guraso-
ak eta arrebak



Eugenia Usabiaga
Urtarrilaren 15ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Andoni Dukun
Urtarrilaren 10ean
5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Aida Vaz
Urtarrilaren 3an
26 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Laura Axpe
Urtarrilaren 11n
5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Ignacio Dovao
Urtarrilaren 16an
17 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Maider Aguila
Urtarrilaren 15ean
5 urte. Urte askota-
rako! Etxeokak eta
Martokoko lagunak.



Josune Fernandez
Urtarrilaren 4an
12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ainhoa Villar
Urtarrilaren 10ean
14 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



F. Jose Pera
Urtarrilaren 6an
39 urte. Urte
askotarako! Familia-
koak eta lagunak.



Julen Fernandez
Urtarrilaren 15ean
9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Elisa Sierra
Urtarrilaren 7an
2 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak eta
aitona-amonak.



Silene Mauro
Urtarrilaren 9an
17 urte. Urte asko-
tarako! Familiakoak
eta lagunak.



Julen Aranburu
Urtarrilaren 2an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Joana Aranburu
Urtarrilaren 8an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.

URTEURRENA

Placida Garcia Jimenez

Prisciliano Garcaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan,
urtarrilak 17, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez
aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



URTEURRENA

Xixili

Bikuña Artolazabal

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilak 17,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



jaiotakoak

BERGARA

Irati Polanco Gomez

Urtarrilak 5

Maier Fernandez Amorrosta

Urtarrilak 8

ANTZUOLA

Ainise Cid Cot

Urtarrilak 5



Benita Beitia
Urtarrilaren 15ean
67 urte. Urte asko-
tarako! Etxeokak,
Maite eta Leire.



Aitor Alonso
Urtarrilaren 8an
5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

hildakoak

BERGARA

Valentina Aranzabal Loiti

Urtarrilak 9, 88 urte

Nikolas Agirrezabal Gaztelu

Urtarrilak 9, 56 urte

Alejandro Marco Pellejero

Urtarrilak 11, 58 urte



Hintza Zabaleta
Abenduaren 21ean
12 urte.
Urte askotarako!
Asker eta Bat.



Eurne Fernandez
Urtarrilaren 14an
13 urte.
Urte askotarako!
Gelako neskak.



Mirian Garcia
Urtarrilaren 20an
25 urte.
Urte askotarako!
Ilobak eta senarra.



Nerea Cuesta
Urtarrilaren 13an
9 urte.
Urte askotarako!
Ruben eta etxeokak.



Carlos Garcia
Urtarrilaren 14an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Ana Mari Alberdi
Urtarrilaren 6an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxeokak.

ANTZERKIA

► Maskarada taldearen **"Nerudaren postaria"** gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Nick Twinley** gaur, eguakitza, 22:00etan Pol-Pol tabernan.

► **Maixa eta Itziar** datoren eguakitzean, hilak 22, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan. Azken diskoaren aurkezpena.

ERAKUSKETA

► **Dani Laskurainen** margo erakusketa Nahikari tabernan.

LEHIAKETA

► **Bergarako Orkestra Sinfonikoak anagrama lehiaketa** deitu du. Bergarako edozeinek parte hartu dezake. Irabazleak 25.000 PTA jasoko du. Lanak DIN A4 edo DIN A3 orrietan jasoko dira urtarrilaren 29ra arte orkestraren entsaio gelan (Musika Eskola. Espoioia, z/g. 20570 Bergara).

► **HIES Ekimena** taldeak "HIESa edo sexu segurua" gaiaren inguruko komiki lehiaketa deitu du, bi kate-

Jaiak

San Anton auzoan

Noiz: zapatuan eta domekan

Urteko lehen auzoko jaiak iritsi zaizkigu astebukaera honetan. San Anton auzoko Jai Batzordeak hainbat ekitaldi iragarri ditu zapatu eta domekarako. Bihar zapatua, 9:30etan, auzokoen bilera izango da lehenik eta behin. Felix Maiztegi Jai batzordeko kideak emandako datuen arabera, auzoan zazpi baserri dira eta batzarrean 15 bat lagun biltzen dira, batez ere jaien inguruko kontuak aztertzeko. Zapatuan, eguerdian, txapligu eta suzko erroberak jaurtiko dira eta ondoren txikiteoa egingo da. Arratsaldean, berriz, mus txapelketa jokatu da Zubiberri sagardotegian 4etatik aurrera. Izen-ematea (1.500 pezeta bikote bakoitzeko) ordubete lehenago egin beharko da. Arratsaldeko 7etan sari banaketa egingo da eta gaueko 9etan auzokoen afaria antolatu da Zubiberrin.

Domekan, San Anton egunean, Umore Ona abesbatzak lagundutako meza nagusia emango du Xabier Azkoitia Santa Mariako parrokoak goizeko 11etan. San Antonekoa XVI. mendeko ermita dugu eta aldareko San Antonen irudia, berriz, XVIII. mendekoa da. Felix Maiztegiaren hitzetan, "San Anton egunean herritar asko joaten da bertara meza entzutera, ohitura handia dago eta eguraldiak ere zerikusia izaten du. Baina azkenengo urteetan behintzat, zortea eduki dugu alde horretatik...". Mezaren ostean, 12etan, krosaren XXI. edizioa jokatu da. Jarraian herri kirolak eta umeentzako jolasak izango dira. Arratsaldeko 5etan, berriz, txapligu jaurtiketak eta traka erretzeak amaiera emango die jaiak.



Trikitixa ez da faltako aurten ere San Anton jaietan.

goriatan: 15-18 urte bitartekoentzat lehena eta 19 urtetik gorakoentzat bigarrena. Lanak entregatzeko epea: martxoaren lehena. Argibideak: 943 76 26 99.

► **Jose Maria Arizmen-diarrieta XIII. Lehiaketa,**

irakaskuntza ertainetako Euskal Herriko ikasleei zuzenduta. Gaia: "Amets bat eraikiz". Narrazio-informazio testuak (15 orrialde gutxienez) zein saiakerak (25 orrialdetik gora) aurkez daitezke euskaraz zein gaztelaniaz. Lanak bidaltzeko

azken eguna: 1999ko maiatzaren 17. Argibideak: 943 79 31 32.

DEIAK

► **San Joxepe** jubilatuen elkarteak datorren eguazte-

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

Fiskala
Lanekoa
Kontablea
Aseguruak



AHOLKULARITZA

TBG. Ander Alberdi Lete
Zuzenbidean lizentziatua

Matxiategi 36, beheka BERGARA
Tf. 943 76 90 83/Faxa 943 76 92 04



**Era guztietako kargak
Iraulkiak-Grua**

Matxiategi 36, beheka BERGARA
Tf. 943 76 90 83. Faxa 943 76 92 04

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

nean, hilak 20, Donostiara joateko irteera antolatu du, tanborrada ikusi eta Aizkorri jatetxean bazkal-tzeko. Irteera 9:30etan Beheko Estaziotik. Izen-ematea (2.700 PTA) San Joxepe elkartearen bertan. Argibideak: 943 76 21 40.

► **Gure Ametsa** elkarteak antolatuta, Patxi Arakama Katalde artisau produktuen kidearen eskutik ahate produktuen gaineko hitzal-di-dastaketa izango da elkartearen urtarilaren 28an, 19:30etan. Ibañez bodegetako artisau cava ere dastatu ahal izango da. Ondoren, afaria. Afarirako izen-ematea (2.500 pezeta) urtarilaren 25era arte zabalik. Plaza mugatuak.

► **Amnistiaren Aldeko Batzordeak** antolatuta, bihar, zapatua, Parisera martxa egingo da euskal preso eta errefuxiatuekiko elkartasuna adierazteko. Izen-ematea Arranon.

► **Udal Euskaltegiak** martxan dauden taldeetan integrazteko matrikula epea zabalduko du astelehenean, hilak 18. Argibideak 943 76 44 53 zenbakian edota euskaltegien bertan (Zabalotegi 13).

OHARRAK

► **Mariaren Lagundiak**, 1999an ospatuko duen 200.

urteurrenari begira antolatutako ekitaldien artean, argazki erakusketa egin nahi du. Bertan "Enseñantza"ko ikasleak agertzen diren argazkiak, eskurtsioetakoak, Mariaren Lagundia agertzen den garai bateko Bergarako argazkiak eta oraintsuago-koak erakutsi nahi dituzte. Horrelako argazkiak dituztenei erakusketan laguntzeko dei egiten zaie. Behin kopia atera ondoren orijinal guztiak itzuliko dituzte.

► **Ertamerikarako laguntza:** Oscar Romero solidaritate batzordeak eta Komite Internazionalistak taldeak Banco Guipuzcoanon eta Euskadiko Kutxan kontu korronte bana dute irekita.

KINTADAK

► **1935**ean jaiotakoen bazkaria Antxonin jatetxean urtarilaren 24an. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Antxonin bertan egin daiteke.

► **1956**an jaiotakoen afaria Txuringo jatetxean urtarilaren 30ean. Izen-ematea Txuringon bertan, 943 76 48 63 zenbakian.

► **1973**an jaiotakoen bazkaria otsailaren 6an Antxonin. Izen-ematea Antxonin (1.500 pezetako depositoa) otsailaren 1era arte.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

El principe de Egipto

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00.

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

La hora de los valientes

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.

La trama

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

La mascara del Zorro

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Mas fuerte que su destino

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Very bad things

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 19:00, 22:15.

Domeka: 19:00, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Mi nombre es Joe

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Kull el conquistador

Domeka: 17:00.

El husar en el tejado

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztarto

La mascara del Zorro

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 22:00.

Domeka: 16:45, 19:30, 22:00.

Astelehena: 20:00.

EL PRINCIPE DE EGIPTO

Zuzendaria: Brenda Chapman, Steve Hickner eta Simon Wells.

Marrakzi bizidunen luzemetrai honek izugarriko arrakasta lortu du takilan eta kritikaren oniritzia ere jasó du. Bi anai munduko inperio handienaren printzeak ditugu eta bietako bat Egipto gobernatzera helduko da. Besteak, berriz, etorkizun hobeaz izango du baina dinastia hautsi egingo da eta biak banandu egingo dira betiko...

LA HORA DE LOS VALIENTES

Zuzendaria: Antonio Mercero.

Aktoreak: Gabino Diego, Leonor Watling, Adriana Ozores.

Antonio Mercero lasartearrak Gerra Zibilean girotutako filmea errodatu du. Madrileko Prado Museotik arte lanak ateratzean, Manuel (Gabino Diego) Goyaren autoertratu bat aurkituko du. Carmen eta Melquiades aitonaren laguntzaz, koadro eder hori Gerraren bortxakeriatik babesteko ahaleginak egingo ditu.

LA TRAMA

Zuzendaria: David Mamet.

Aktoreak: Ben Gazzara, Felicity Huffman eta Ricky Jay.

Joe Ross konfiantzazko gizona dugu baina guztiok mugak dauzkagu. Bere konpainiara-ko prozedimendu berri bat asmatuko du eta Joe beldur da norbaitek ez ote dion ideia lapurtuko. Gizon aberats batek bere laguntza eskainiko dio baina Joe ez da inorekin fidatuko...

BERRIGARAK ez du gerta litekeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86

DENA
100etik

ZURE OPARENTZAKO

Simon Arrieta 3

Eric Toussaint belgikarrak Hirugarren Munduaren kanpo zorrari buruzko hitzaldia eman zuen eguaztenean Kultur Etxean. Toussaint aipatutako zorra baliogabetzeko batzordearen presidentea da Bruselan eta "Deuda externa: las finanzas contra los pueblos" liburuaren eman du argitara.

G. Mitch hurakanak Er-tamerikan eragindako kalte- en ondoren, bertako herrial- deei kanpo zorra barkatze- az hitz egin da.


E. Mitch hurakana hon- damendi natural bat bezala aurkeztu zen iritzi publikoa- ren aurrean, baina ez zen kontutuan izan hondamen- diaren neurria azken 10 ur- teotako politikaren ondorio- dela. Milaka hektarea pribati- zatu egin ziren eta lur hori- etan zeuden nekazariak (30.000 familia inguru) bertatik alde egin behar izan zuten mendira edota ibaiert- zetara. Eurien ondorioz, beraiek izan ziren lehenda- biziko biktimak; orain 10 urte ez zen horrenbesteko hildako gertatutako. Gaine- ra, osasun zerbitzuen pribati- zazioarekin ez zegoen larrialdi egoerari aurre egite- ko bitarteko egokirik.

Kanpo zorraren balioga- betzeari dagokionez, Fran- tziak Nikaraguari barkatuta- koa bere kanpo zorraren %0,5 da. Nikaraguak 6.000 milio dolar zor ditu, huske- ria bat mundu mailan (Euro- disney egiteak balio zuena, adibidez). Baina kanpo zo- rraren laurdena duten Fon- do Monetario Internacional delakoak eta Banku Mun- dialak ez dute kantitatetik baliogabetu eta hartzekodu- nak biltzen dituen taldeak ere 2002 urterarte atzeratu du zorraren ordainketa. Bai- na ordaindu gabeko intere- sak kapitalizatu egiten dira eta, beraz, 2002. urtean

ERIC TOUSSAINT

Idazle eta irakasle belgikarra

"Herrialde aberatsak ez daude Hirugarren Munduari zorra barkatzeko gertu"



Komite Internazionalistak taldeak gonbidatuta, Toussaint Bergaran izan da.

gehiago ordaindu beharko dute.

G. Noiztik dator Hiruga- rren Munduak duen kanpo zorra?

E. 1970eko hamarkadan iparraldeko herrialdeek eta Banku Mundialak oso intere- res tasa baxuko maileguak proposatu zizkieten hegoal- deko herrialdeei garapen proiektuak egin ahal izate-

ko. 1980 inguruan Estatu Batuek interes tasak igotzea erabaki zuten zorra zeuka- ten herrialdeei kontsultatu gabe. Maileguak kontratatu- ta zituzten herrialdeek inte- res altuagoa ordaindu beha- rra zuten eta, hori gutxi be- litz, herrialde horiek esportatzen zituzten produktuen (petrolioia, kafea...) prezio- ek behera egin zuten. Kri- siak okerrera egin zuen eta mailegu gehiago eskatu be- harrean aurkitu ziren. 1980tik 98ra bitartean Hira- garren Munduak 80an zor- zuena lau aldiz ordaindu du eta, aldi berean, orduko zo- rra hirukoiztu egin da.

G. Zuen proposamenak zer nolako harrera jaso du?

E. Zorraren baliogabetze- a eskatzen dugu, Hiruga- rren Munduak nahikoa ordaindu duelako, baina herrialde aberatsak ez daude zorra baliogabetzeko gertu. zorrak iraunez gero Hiruga- rren Munduan interesatzen zaien politika egingo dela- ko.

G. Hirugarren munduak 3. mailan jarraituko du XXI mendean?

E. Euren egoerak oker- rera egingo du eta ez daki datorren mendean ez ote- gareen laugarren munduak hitz egiten hasiko. Badirudi herrialde aberatsek bultzatzen duten globalizazioan besteek ez dutela lekunik. Horren kontra azaldu beha- rko dira hegoaldeko herriak. Bestela, Ruandan edo- ta Argelian gertatu izan diren egoerak ezagutuko ditugu. Egoera jasangaitzean bi- zi direnez, barruko tentsio- ak areagotu egiten dira eta horrek euren arteko borro- kak pizten ditu, etnien arte- ko borrokak balira bezala. Hori guztia politika makro- ekonomikoen ondorioa da. Horregatik erantzun solido- rio bat topatzen saiatu be- har gara. **B**

"Mitch-en hondamendiaren neurria azken 10 urteotako politikaren ondorio da; orain 10 urte ez zen horrenbeste hildako egongo"

Ertzaintzaren komisaldegi berria eraikitzeko lanak hasi dira

650 milioiko aurrekontua dute eta bi urte barru amaituko dira

Gabonen aurretik hasi zituzten Ertzaintzaren komisaldegi berria eraikitzeko lanak. Bergarako Udalak eta Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak orain dela bi urte inguru sinatutako hitzarmenaren arabera, komisaldegia egiten denean Ertzaintzak Arrizuriaga parkea laga eta hau Udalaren eskuetara pasatuko da.

Hitzarmenaren arabera, Bergarako Udalak Pesako autobus geltokiaren eta bariantera irteteko zubiaren artean dagoen lursaila birkalifikatu eta Eusko Jaurlaritzari emango zion komisaldegia berria eraikitzeko eta Jaurlaritzak, berriz, Arrizuriaga jauregia eta hau inguratzen duen lorategia emanango zion Udalari. Horretaz gain, Bergarako Udalak beste 70 milioi pezeta emango zizkion Jaurlaritzari, etxea lagatzearen konpentsazio moduan. Akordioa 1996ko udan lortu bazuten ere, obrak iazko abendura arte ez dira hasi. Aurretik, Urkuluko uren hodia desbideratu egin behar izan dute, le-



Ertzaintzaren komisaldegia egiteko lanak hasiak dituzte Area 20ko lursail honetan.

hengo komisaldegia berria joango den azpitik pasatzen zen eta.

Komisaldegia berriko lanak NIP S.A. enpresak egiten dihardu. Obren aurrekontua 650 milioi pezeta ingurukoa da eta adjudikazioa Gasteizko gobernua egin du. Obra hasierako akta sinatzen denetik aurrera, 20 hilabeteko epea izango dute lanak amaitzeko, beraz, esan dezakegu 2000. urte amaierarako edo izango dugula Ertzaintzaren komisal-

degia berria. Orduan, Bergarako Udalak herriko jauregi eta lorategi ederrenetakoa berreskuratuko du.

Komisaldegia berriak eta bere inguruneak 1.475 metro karratu inguruko lursail hartuko du eta etxeak berak 478 metro karratu inguruko azalera izango du. Lur azpian bi solairu izango ditu eta gero, beheko solairua eta lehen eta bigarrena; honen gainean ganbara eta terraza moduko bat ere edukiko ditu etxe berriak.

Bergarako Udalaren etorkizunerako asmoa Arrizuriaga Udal Musika Banda eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren egoitza bihurtzea da eta bestalde, lorategia konpondu eta bertan parke publikoa jartzea. Gainera, parkean auditoriuma egitea ere aurreikusita dago. Dena den, hauek asmoak besterik ez dira, legealdia amaitzeaz dago eta ikusi egin beharko da hurrengo legealdian kontu honekin zer gertatzen den. **B**

Tramonix taberna

Bolu 30, behea. BERGARA. Tf. 943 76 44 49

Zurradero, 4. BERGARA. Tf. 943 76 72 38

KAFETEGIA

KAIKO

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

PINTXOAK eta asteburuetan eta jaiegunetan **RABAKI!**
Eta orain, zatoz **REAL**aren eta **ATHLETIC**en partidua ikustera!



Koldo Eleizalde eta Aranerreka kaleen arteko lotunean egingo dute errotonda. Aurrekontua ia 4 milioi pezetakoa da.

Koldo Eleizalde eta Aranerreka errotonda batekin lotuko dira

Kaleak asfaltatu eta semaforo berriak jarriko dituzte

Koldo Eleizalde eta Aranerreka kaleen arteko lotunean eraikiko den errotondaren proiektua eta lehiaketa arautuko duten baldintza pleguak onartu zituen aho batez Udaltzarak eguaztenean. Plenoa eguerdian izan zen eta bertan ez ziren egon HBko zinegotziak. Udaltzarak joan zen abenduan onartu zituen errotonda berria egiteko proiektua eta lehiaketako baldintza pleguak, baina

proiektuan aldaketa batzuk izan dira eta aurrekontua handitu egin da, horregatik egin zen eguaztenean prezazio pleno bat.

Aranerreka eta Koldo Eleizalde kaleen arteko lotunean 5 metroko diametroko errotonda eraikiko da. Horretarako, telefono kabina dagoen espaloiri zati bat kenduko zaio. Lanen aurrekontua 3.900.000 pezeta ingurukoa da eta Udalaren asmoa lanak lehenbai-

lehen egitea da. Bestalde, Boluko errotonda berri honen ondoan, orain dauden semaforoen ordezkari beste bi semaforo berri jartzea ere onartu zuen Udaltzarak. Semaforo berri hauen aurrekontua 2.800.000 pezeta ingurukoa da. Lan hauek bukatzen dituztenean Aranerreka (Udal biltegitik Peruldeko zubiraino), Koldo Eleizalde eta Iraburu kaleetan asfaltu berria botako dute.


ELA sindikatua nagusi Elay taldeko enpreetan

ELA sindikatua zortzi ordezkari atera ditu Elay taldeko enpreetan, orain dela lau urte baino bi gehiago. La-Bek, ostera, bost lortu ditu, orain dela lau urte zituztenei eutsiz eta CCOO eta UGTk baturik lortu dute, orain dela lau urte bezala. Elay taldeko bost enpresa biltzen dira: Elay S.A., Trokelar, Elay Ind, Seytra S.A. eta Balzers Elay.

Seytra S.A. enpresan igo du nabarmen ELA sindikatua, 1994. urteko hauteskunde sindikalen aldean, besteetan ordezkari bera lortu du eta. Beste hiru sindikatuek, orain dela lau urte zuten ordezkari bera lortu dute oraingoan.

Pizinetako taberna hartzeko eskariak astelehenera arte

Agorrosingo igertuak tabernaren lehiaketa adjudikatze baldintza pleguak onartu zituen Udaltzarak abenduan. Astelehenera amaitzen da eskariak aurkezteko epea.



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekuruzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



MUJIKA
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 25 81

San Juango ermita ingurua eta Angiozarko frontoia berrizteko lanak adjudikatu dira

San Juan ermitaren inguruak urbanizatzeko lanak Contruccionen Mitxaiak SL enpresari adjudikatu dizkio Udalak 14.690.540 pezetan. Lanok egiteko hiru eskari aurkeztu dira eta Udalak merkeena aukeratu du. Ermita ondoko lurra kendu, ingurua berdindu eta asfaltua botako dute, ondoren ziburuak, aulkiak e.a ipintzeko. Geyser Gastech S.A. enpresatik ermitarako bidea eta hemendik errepide nagusirainoko bidea ere konpondu egingo dituzte.



San Juango ermita ingurua urbanizatuko dute aurki.

ANGIOZARKO FRONTOIA

Bestalde, Angiozarko frontoiko obrak Sukia enpresari adjudikatu dizkio

Udalak orain dela aste batzuk. Angiozarko frontoia estali, berriztu eta harmailak eta aldagelak egiteko lanek

aspaldi bukatuta behar zuten, baina lanak egin behar zituen Etxabide enpresak ez zuten hitzartutakoa bete eta,

ondorioz, obrak geldi dade uztaile ingurutik. Orain, lanok beste enpresa batek egingo ditu eta frontoia maiatz ingururako berriztuta egotea espero dute.

Bestalde, abenduan egindako bi batzarretan hainbat gai onartu zituen Udalbatzak. Besteak beste, Azkarruntz auzoko Santalde baserrira argindarra eroteko milioi bat pasatxoko gastu proposamena; Uebera auzoko Artiz eta Olañeta baserrietara doan bidegurutzeko konpontzeko ia bost milioi pezeta eta Bolu kaleko atzealdean dagoen eremuaren (6.000 metro karratu inguru) garbiketara egiteko ia 3 milioi pezeta.

Kalean elur gutxi baina goietan zelaiak zuri-zuri martitzenean

Elurra izan da asteko protagonista. Egia esan kalean ez du asko egin: astelehenean elur-maluta batzuk egin zituen eta piska bat zuritu zuen, baina gutxi. Goietan, berriz, zuri-zuri agertu zaizkigu zelaiak. Gorlan, esaterako, 20-30 zentimetroko elur-geruza zegoen martitzenean eta Bergaratik

Elosura doan errepidea moztuta zegoen martitzen goizean hirugarren mailako ibilgailuentzat. Diputazioko langileak makinekin kaminoak garbitzen aritu ziren eta ez zen aparteko arazorik izan autoendako. Eguraldi ederra aprobetxatuz asko izan ziren martitzenean elurretara joan zirenak.



Amestizahar baserrietik zuri-zuri ikus zitekeen Gorla martitzen goizean.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Berrigara

351 zenbakia.
1999ko urtarrilaren 15a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodríguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritziaren erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

ZUZENKETA BAT

Joan zen azaroaren 20ko Berrigara jaso ondoren (344. alea), zuzenketa bat egin nahi nuke niri egindako elkarrizketan. Nire hitzetan esaldi hau jasotzen zen: "...poliziaren %90 protestantea da eta gainontzeko %10 lealista" eta nik zera esan nuen: poliziaren %90 protestantea dela eta %100ean lealista. Hau da, Ipar Irlanda banatuta dago erlijioaren aldetik eta politikoki. Erlijioari begira, protestanteak daude alde batetik eta erromar katolikoak bestetik, eta polizien %90 protestantea eta %10a erromar katolikoa. Politikan, lealista-unionistak (eremu batuaren barne jarraitu nahi dutenak) daude alde batetik eta nazionalistak (Irlandako Errepublikan integratu nahi dutenak) bestetik, eta polizia %100ean lealista da. Nahiko garbi, ezta? Ba, polizia guztiak alde batekoak dira eta erakunde armatuek entregatzen badituzte euren armak (unionistek hori nahi dute) alde batekoek armatuak jarraituko dute, "legalki".

Besterik gabe, jaso eza-zue nire agurrik beroena. Beste bat arte. Agur.

Inazio Irigoien. Dublin

ESKOLA EREDU ERDALDUNAK SALATU

Gizartea euskararen normalkuntza eskatzen ari da behin eta berriz. Baina hizkuntza bat ezin da normalizatu dagokion lurraldeko biztanleek ezagutzen ez badute. Euskal Herriko biztanleriaren gehiengo handi batek ez daki euskaraz eta, beraz, prozesu normalizatzaile bat gauzatu dadin hurrengo belaunaldiek gure hizkuntza jakitea lortu behar da. Horretarako beharrezkoa da ematen zaien hezkuntzak hori bermatzea.

Gainbegiradaxo batek zera diosku: egun ikasten dabilen euskal herritar askok ez du euskaraz jakingo edo, behintzat, ez du eskolan ikasiko. Eskualdeka alde galantak ematen dira baina, oro har, umeen portzentaia handi batek euskararen ezagutza bermatzen ez duen eredueta batean egitenari da bere ikasketak (kasurik

larrienak euskara ofiziala ez den zonaldeetakoak diren arren, norki: Iparralde eta Nafarroako hegoaldea). Ikasle horiek ahalegin pertsonal eta ekonomiko handia egiten beharko dute etorkizuneko euskara ikasi nahi badute.

Bistan dago euskara ezagutzeko eskubidea biztanle orori bermatuko diren eskola plangintza egokirik behar dela, gaur eguneko ereduaren sistema behin berriko gaindituz. Horrexegatik Euskal Herrian Euskaraz irakaskuntzarekin loturirik kanpaina hasi du.

Urtarrilean zehar EHEko eskola eredu erdaldunen salaketa egingo du, era bitan batetik, informazioa emanez (eredu erdaldunak zere eskolatan mantentzen diren aipatu); bestetik, interpellazioen bidez (eskola horietan daukaten erantzukizuna gogorazi, aurrez aurre erantzutun bitartez). Euskalduntzen ez duten ereduak Euskal Herriari zer nolako kaltea egiten dioten gogortu nahi dugu. Hemen ez dugu ezertarako behar.

Euskal Herrian Euskaraz

tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Beharpenetako produktuak fidagarriak iruditzen zaizkizu?



Angela Sierra

Egia esan, ez dut beharpenetan gehiegi erosten, bakarrik beharrezkoa zaidana. Baina uste dut kalitate oneko produktuak daudela eta gainera prezio hobean.



Florian Muñoz

Beharpenek ez naute kontentitzen, uste dut kalitateak behera egiten duela. Ez naiz beharpenen zai egoten, baina gustatzen zaitzer dagoen begiratzea.



Rogelio Heis

Aurten oraindik ez dut joateko denborarik izan baina uste dut, ondo begiratu gero, beharpenetan gauza interesgarriak topatzeko aukera dagoela.

Gertaeraren bat salatu edo txalotzeko, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

TXAKUR KAKEN ONDORIOZ KALEAK ETA PARKEAK ZIKIN

Aste honetan Jose Sanchezen deia jaso dugu BERRIGARAKO erredakzioran. Jose Sanchezek herriko kale, lorategi edota parkeen zikintasuna salatu nahi du baina ez kale garbitzaileei kontuak eskatuz, baizik eta txakurren jabeek beste portatera bat erakus dezatela eskatuz.

Joseren ustez, lotsagarria da kaleetan horrenbeste txakur kaka topatzea. Txakurren jabeek euren animalien zikinak jasotzeaz arduratu beharko lirakeela dio Jose Sanchezek.

OHARRA: Joan zen asten sail honetan jaso genuen Maria Pilar Agirre-ren deia ez zen Maria Pilar Agirre Garairena.



Inmaculada Gallastegi

Denetik dago, batzutan produktu zaharrak saltzeko aprobetxatzen delako. Zer-baiten beharrea baldin bainago joaten naiz bakarrik.



Juan de Dios Benitez

Ez daukat joateko ohiturarik. Normalean zaila izaten da gauza interesgarriak topatzea, beharpenak zabalitzen direnerako onenak salduta egoten direlako.



Lucia Farrás

Leku batzutan kalitatezko produktuak egoten dira, bai. Bergaran ere dendak fikatzen dira. Aurten ez naiz ibili oraindik, baina igual bilatuko dut zerbaite...

■ ikuspuntua: **jesus mari kalboetxeaga**

Inperiosoren bazka

Egia esan behar badut, ez daukat nik futbolaren ingurumarian sortutako pertsonaia itxuragabeko honen gorabehera ekonomikoaren ezagutza sakonik. Baina bai esan nezake, hasiera-hasieratik zeharo susmagarria iruditu zitzaidala bere jarduna, are gehiago, bizizaleen habia eta jeke arabiarren eta mafioso trafikazaleen atsedenleku bihurtu den Marbella horretako alkatetza eskuratu zuenetik. Batere baldur barik esango nuke Atletico de Madrideko presidentearrikiko mesfidantza hori oroko-



rra dela, burutik sano samar gaudenon artean, behintzat. Izan ere, zer pentsa ote liteke, bestela, 1969an, Guadarraman, diru-laguntza publiko- ez baliatuta ospakizun handietarako eraikina egin zuen hartaz?. Inaugurazioegunean bertan sapaia behea jo zuen, gonbidatuak azpian harrapatuz. 52 lagun hil ziren. Lokalak ez zeukan ez lizentzia ofizialik, ez arkitekto arduradunik, ezta erregistratutako proiekturik ere. Bertako jabeak, Jesus Gilek, bi urte eta hiru hilabete eman zituen kartzelan, Francok indultua eman zion arte. Berehala itzuli zen, hala ere, eraikuntza-negozioetara. Ordu-

tik, gizenduz eta gizenduz joan da, gaur egun kondenuatu nahi duten berberak emandako bazkari esker, batez ere.

Itxura denez, lasai dago Gil, tentsio-gorakada susmagarriak gorabehera. Instituciones Penitenciarias delako erakundeak ematen duen tratu berdintasunaren froga nabarmena, bestalde. Jakin badaki, gainera, aurki kalean egongo dela, ondo bai baitaki beste agintari batzuek egiten ez dutenik ez duela egin. Txiki-keria bategatik harrapatu dute, Al Capone bezala. Baina, azken batean, gutxienezkoa da hori, izan ere, Espainian garrantzitsu eta erabakigarriena ez da delitua bera, zeinek egin duen baizik. Imperiosok berehala izango du berriro ondoan ferekatu eta jaten emango diona.

■ asteko menua: **mekolalde jatetxea**

Berakatz-zopa



FLORITA TXINTXURRETA
Mekolalde Jatetxeko sukaldaria

OSAGAIAK (4 lagunentzat)

- Zopako bat eta erdi
- Berakatz buru bat
- Oliba olioia
- 200 gramo hirugihar
- Urdaiazpiko zati batzuk
- Arrautzak (lapikoa estaltzeko beste)

PRESTAKETA

- Lapiko batean ura, oliba olio txorrotada bat eta berakatzak ipini.
- Ordu erdi inguru egosten laga.
- Bustinezko lapiko batean laminetan ebakitako berakatzak eta hirugihar zatitxoak oliba oliotan erretzen ipini eta gorritu arte eduki.
- Ondoren, zati finetan ebakitako zopakoa gehitu.
- Beste lapikoan egin dugun berakatz salda zopakotara bota eta guztia estali.
- Ondoren, sutan ipini ondo egosi arte.
- Bukatzeko, arrautzak eta urdaiazpikoa gainera bota eta egiten laga.

■ adituen esanetan

Inplanteak

ALBERTO GOROSABEL, *Mediku-dentista*

Gaur egun odontologia munduan dagoen aurrerakuntza handienetako bat dira inplanteak. Inplanteak hezur-rean jartzen diren titaniozko sustrai artifizial moduko batzuk dira. Inplanteen gainean hortz bakarrak edo zubiak jari daitezke gure hortzen moduko funtzioa lortuz.

Orain arte, haginaren bat falta zenean, bi albokoak tailatu beharra zegoen zubi bat egin ahal izateko. Inplanteek, berriz, hortz bakar baten galera ordezkatzeko aukera ematen dute aldameneko hortzak ikutu barik.

Goiko hortzen kasuan sei hilabete eta behekoetan hiru behar dira sustrai

artifizialak hezur-rean integratzeko. Ondoren, neurriak hartzen dira hortzak jartzeko.

Inplanteekin, gainera, ordezko protesia tinkoago geratzen da, mugitzea saihestuz. Ordezko mugigarriak bere tokian finko egonik, hauek normalean sortzen dituzten arazoak baztertu egiten dira, entzien iritazioa edota aparatuen hauen mugimendua adibidez, estabilitate eta funtzio ona lortuaz.

Dena den, inplanterik onenak, lojikoak denez, norberaren sustraiak dira, hori dela eta geureak zaintzen saiatu behar gara eta horretarako, haginak eta ahoa garbi edukitzea komeni da. **B**

■ bergarako gordailutik

AGINTE ON BATERAKO ARAUDIA (I)

Imanol Sorondo

M oya eta Orte Joakin Inazio alkateak 1764.eko urtarrilean herriari emandako

aginduak dira hauek. Aldez aurretik, ipini dezagun 30 direla eta, aurka eginez gero, den-denak euren isunak dauzkatela. Gehientsuenak ipiniko ditugu idatzi honetan, numeroek aginduaren zenbagarrena esan nahi dute.

1. Birao eta juramenduei buruz erabakita dagoena gorde egin behar da.

2. Ehiza sareekin eta antzerako tresnekin egitea galerazia dago.

3. Jokatzaileei eta hauek hartzen dituztenei buruz erabakitakoak gorde egin behar dira.

4. Era berean, meza nagusiaren eta bezperen garaian jokatzeko dutenei buruz.

5. Gaueko amezkila ondoren ez dardila inor armekin ibili, nahiz erasokoak nahiz babeeseoak izan hauek.

6. Ez dadila ausartu inor daga eta sastagairik ekartzera, ez egunez eta gauez.

7. Herriko biztanle guztiak garbitu behar dituzte auzoetako bideak, ondo ibiltzea galerazten dieten sasi, lur, harri eta gainerako eragozpen guztiak kenduz.

8. Ostalariak alkatearengana azaldu daitezela salerosketen prezioen zerrera jasotzera. Ez dezatela garraioetan dabiltzan mandozaintzako garbitero erosi, ez herrian eta ez kanpoan; hauek ere ez dezatela erosi merkatuan izan ezik, eta hori egunean egunerokoan behar dutena bakarrik, ez salmentetarako.

9. Ostalariak euren bezeroei emateko adina ardo zahagi baino ez dute eduki behar eta herriko tabernetan erosi behar dute. Horrelako edo antzerako salmenterik ez dute egin behar ez antzerakoekin, ezta gazta, azukre, piko eta txekin ere.

Jarraituko dugu. **B**

Obarra: Abenduaren 18ko BERRIGARA (348 zkia.) "Bakailao eta balea berriak Terranobara" izenburuko zutabearen urtea aipatzea falta zen: 1587.



Bedelkarreko zozketa

Bedelkar Bergarako Dendarien Elkarteak **milioi bat pezeta** zozketatu du Gabonetan bere bezeroen artean. Joan zen astean jakitera eman ziren zerbaki sarituak eta **Elisa Asenjok** eskuratu du lehen saria (500.000 pezeta erosketa-baletan). Saritutako boletoa (1.828 zenbakia) **Distribuciones Larrañagan** eskuratu zuen Elisak. **Rosario Garitanok**, berriz, 300.000 pezeta gastatu ahal izango du Bedelkarreko komertzioetan bigarren saria (122.811 zenbakia) **Marcon** jaso ondoren. Bestalde, **Gaztelu** burdinakidendan banatu zen hirugarren saria (200.000 pezeta erosketa-baletan) baina saritutako boletoaren (90.404 zenbakia) jabea ez da azaldu oraindik. Argazkian Elisa Asenjo, Beatriz Beistegi Bedelkarreko idazkaria eta Rosario Garitano. Zorionak!!

Urteko lehen bergararra

Irati Polanco Gomez izan dugu 1999ko lehen bergararra. **Jose Ramon Polanco eta Inma Gomez** en bigarren seme-alaba da Irati eta **Erik** anaia ere pozez gainezka dago bere arrebatxoarekin. Irati urtarrilaren 5ean jaio zen Arrasateko Ospitalean eta 3,760 Kg.ko pisua eman zuen. Inmaren arabera oraingoz ez du zarata handirik ateratzen, ondo jan eta ondo lo egitearekin nabikoa dauka. Errege bezperan, oparirik ederrena Polanco-Gomez familiarentzat. Zorionak!!



Mus txapeldunak

Amnistiaren Aldeko Batzardeak mus txapelketa antolatu zuen Gabonetan Artatse elkarteetan. Bertan 30 bikote izan ziren lehian abenduaren 29an eta, giro onean, enbidoak eta hordagoak tartekatu ziren arratsaldean zehar. Azkenean, **Igor Laskurainek** eta **Ramon Kondek** osatutako bikotea nagusitu zen eta, sari gisa, txapela, txanpaina eta Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria irabazi zuten. 1998ko Bergarako azken mus txapeldunak...



Loramendi kirolak

%30

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txandalak
- Sudaderak eta abar

BEHERAPENAK!

Zapatilak

%20-50

San Andres eta Garibain, Arrasaten

Berrigara GIDA 99

Bergara eta Antzuolako telefonoak
172 orrialdeko liburutxoan

Adi!

Gaur, urtarrilak 15, BERRIGARAekin batera etxera eramaten ez badizute, zator Errotalde jauregira zeure alearen bila

Adi!

BERRIGARA GIDA 99an akatsen bat edo bestelako hutsen bat topatuz gero, DEI IEZAGUZU 943 76 03 97 TELEFONORA datorren urterako zuzenketa egin dezagun

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazarria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Kristina Romero **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 29 zenbakia. 1999ko urtarrilaren 15a.

Beasain-Durangorako sarrera

Deskargako hirugarren bihurgunean egingo da

Antzuolak ere Beasain-Durango autobiarako sarrera bat izatea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Beasain-Durango autobia hiru proiektu aurkeztu baziren ere, ez zen aurreikusten Deskargan egingo den sarrera. Azkenean hiru proiektu horien arteko konbinazio bat onartu da eta Deskargan sarrera egitea erabaki da.

KAMIOI GUTXIAGO

Beasain-Durango autobiarari esker herritik pasatzen den errepidean askoz ere trafiko gutxiago egongo da eta horri esker kamioien zirkulazioa ere gutxitu egingo da. Dena den, eta Deskargan egingo den sarreraraino behintzat elkarrekin jotaten jarraituko dute kamioi eta autoek.

Herriko enpresetara datozen kamioiek ere Deskargan lagako dute autobia eta herritik Zumarragara doazenek, berriz, Deskargako lehenengo km-ak egin beharko dituzte. Dena den, eta 2009. urtera arte (lanak orduan hasia erabaki baitute) orain arte bezala jarraituko du denak. ■

A

ntzuolako Udalak Beasain-Durango autobia-
ren ibilbidearen berri
izan zuenetik, behin eta
berriz eskatu izan dio
Gipuzkoako Foru Aldun-

diari herrian edo inguruetan autobiarako sarrera bat egitea. Hasieran aurkeztu ziren hiru proiektuetako batek ere ez zuen honelakorik aurreikusten. Hori dela eta, Udalak alegazioak aurkeztu zituen Aldundian. Azkenean, eta onartu den laugarren proiektu bati esker, Deskargan izango du Antzuolak autobia honetarako sarrera.

Valen Moñux aparejadoreak adierazi digunez ez da sarrera osoa izango. Hau da, antzuolarrok Olamendi gaineko bihurguneraino joan beharko dugu autobian sartzeko. Dena den, erabaki hau lehen emandakoa baino hobea da herritarrentzat. Hasiera batean Bergarako Bonbulun egin behar zuten sarrera-irteera. Gauzak horrela Beasaindik etorriz gero ia Bergararaino joan beharko ginateke Antzuolara etortzeko. Erabaki berriekin, ordea, ez dugu alferrikako biderik egin beharko. Aldundiak egun Deskargan dagoen bihurgunea konponduko du eta errepidearen gainetik joango den autobiarako sarrera egingo du puntu.



Puntu honetan egingo dute autobiarako sarrera.

■ ■ ■
Antzuolarrok Olamendi gaineko bihurguneraino
joan beharko dugu autobian sartzeko
■ ■ ■

Patxi, Madriletik Antzuolara eta Martutenera

Joan zen abenduaren 30etik Martutenen dago Patxi Olabarria antzuolara. Juana Laskurain bere amama zena-ren hileta elizkizunetara ekarri zutenetik dago han. Gauzak horrela, Antzuolako Udalak joan zen martitzenean egin zuen Udalbatzarrean, Patxi Martutenen gelditzeko eskaera onartu zuen aho batez. Horretarako kartzeletako zuzendaritzari eskutitza bidaliko diote. Dagoeneko Mikel Larrea alkateak bidali du eskutiz bat eskaera bera egiteko. Orain kartzeletako zuzendaritzak erabakiko duena ikustea bino ez da gelditzen. Patxi orain dela 168 egun kalean behar zuen, legearen arabera.

Abenduaren 30ean, Antzuolara ekarri zuten egunean, jende ugari bildu zen herriko plazan Patxi ikusteko esperantzarekin.



Patxi, Antzuolara ekarri zuten egunean.

Hileta elizkizunaren ostean antzuolar askok Patxiarekin berba egiteko parada izan zuten, baina dudarik gabe unerik zirrargarriena herritarrak agurtzera irte-

tzen laga ziotenean izan zen, argazkiak jasotzen duen unea, hain zuten ere. Une oro Ertzantzak zainduta egon zen Patxi eta eskuburdinak ipinita.

Sarriegi Taldiaren aurkezpena

Joan den abenduaren 26an egin zen Antzuolan Sarriegi Taldiaren aurkezpen ofiziala. Iker Sarriegi Rrealeko jokalariairekin batera, De Pedro, Luis Perez eta Lopez Rekarte "Bonba" txuriurdinak ere izan ziren herrian. Zinean egin zen aurkezpena eta argazkian ikusten denez, Andoitz Irimok aureskua dantzatu zion Sarriegiri Taldiaren izenean. Arrasate Bonba Taldieko kideak ere izan ziren herrian eta benetan gau luzea egin zuten taldekideek. Goizeko 8ak aldera oraindik ere baziren hainbat realzale eta bestelakoak ere alde batera eta bestera.



Inauteriak prestatzen

Dagoeneko hasi dira herriko hainbat emakume iaz bezala, inauterietan dantzatuko duten dantza ikasten.

Iaz hasi zen ekimen honetan herriko dantza taldekoak ez diren gizon eta emakumeak ari dira, jakina, dantza taldeko lagunek zuzenduta. 1998an txerri dantza egin zuten emakumeek eta gaurnekin, berriz, sorgin dantza. Emakume taldea astean birritan elkartzen da dantza ikasteko. Entseiuak, astelehen eta eguenetan izaten dira, arratsaldeko 20:30etatik aurrera.

Beraz, dantza egitea atsegin baduzue aukera ederra daukazue Maristeta lokaletan, hortxe biltzen baitira herriko dantzari "amateurrak".

Gizonezkoek ere berehala ekingi diete entseiei.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margoituak
- Mokatak eta tapizatuak

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA


DESKARGA
AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

Antzuolarren Independentziaren Eguna, azkenean, urtarrilaren 16an


Bilbon egin zen manifestazioarekin bat egiteko atzeratu zuten jai eguna

Hilabeteko atzerapenarekin, baina azkenean urtarrilaren 16an ospatuko da antzuolarren Independentzia Eguna. 1629ko abenduaren 12an lortu zuen Antzuolako herriak Bergaratik banatzea. Iaz herriko hainbat taldek, Idolazek, Gazte-txeak eta Kalebarrengo Jai Batzordeak, besteak beste, antolatu zuten lehen aldiz jai egun hau. Orduan arrakasta handia izan zuen batez ere gazteen artean. Hori dela eta, aurten ere gauza bera egitea pentsatu zuten eta gazte koadrila batzuk aritu dira bigarren Antzuolarren Independentzia Eguna antolatzen.

Dena den, eta antolatzaileek abenduaren 12an ospatzea nahiago zuten arren, atzeratu egin behar izan zuten jai eguna. Urtarrilaren 9a hautatu zuten horretarako. Baina egun hau ere atzeratu egin behar izan zuten. Joan zen zapatuan Bilbon egin zen manifestazioarekin bat egin nahi izan zuten antolatzaileek. Hori dela eta, urtarrilaren 16an ospatuko da antzuolarren Independentzia Eguna. Gainera, eta aurrerantzean ere horrela izango delakoan, baserritar jantzita joatea eskatu dute antolatzaileek.

Goizean goizetik izango dira ekin-tzak. Honela goizeko 10:30etatik aurrera, txistulariek kalejira egingo dute eguna alaitzen joateko. 12:30etan Euskal Presoal Euskal Herrira lelopean kontzentrazioa izango da Zurrategiko plazan.

Ondoren, gosea egiten joateko, herri txikiteoa, txistea badirudi ere, Bergarako txaranga batek alaituta. Hori eguerdian izango da eta bazkaria, berriz, 14:00etan, pilotalekuan. Aurten ere Zaurutzeko sukaldariak arduratuko dira bazkaria gertatzeaz.



iaz baino jende gehiago espero dute antolatzaileek.

BAZKALOSTEAN

Jaialdia bazkalostean hasiko da. Jon Maia bertsolariak gain, oraintsu Bizkaiko eta Arabako txapeldun izendatu duten Igor Elortza bertsolari durangarra ere izango da pilotalekuan. Bestalde, iaz ere pilotalekuan aritu ziren eta Txiskola tele-

bistako saioan ezagunak egin ziren Orioko Gansterrek ere euren txiste eta kantutak eskaintzeko aukera izango dute. Tartean herriko trikitilari, dantzari eta txistulariak ere arituko dira.

Antolatzaileek adierazi digutenez, pilotalekuan taberna jarriko dute zapatuan. Bazkalostean bakarrik egongo da zabalik, ekitaldiek dirauten bitartean.

JAIA LUZATZEKO

Aurten antolatzaileek egun osoko egitaraua egin nahi izan dute. Hori dela eta, Triki ta Ke taldearen emanaldia antolatu dute. Arratsalde partean Zurrategiko kioskoan arituko dira eta gauean, berriz, beste emanaldi bat eskainiko dute. ■

■ ■ ■
*Baserritar jantzita
 joatea eskatu dute
 antolatzaileek*
 ■ ■ ■

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta

bestelako imitazioak.

ANTZUOLA

BERGARA

☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

**Tarima eta parketa jartzea
 Zoruen kutxilatua eta barnizatuak**

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
 ANTZUOLA

Gobernuz Kanpoko Erakundea herrian

Anelkar, Antzuolako elkartasun taldea, GKE sortu dute hainbat antzuolarrek

Jose Jabier San Sebastian eta Mari Kontxi Laskurain *Anelkar* taldeko bi kide dira. Eurak, beste lau lagunekin, Inma Beristain, Karmele San Sebastian, Jesus Arregi eta Jabier Etxaniz, Gobernuz Kanpoko Erakunde (GKE) hau eratu dute, herriko elkartasun ekimenak bilduz. Juan Antonio Lizarralde antzuolarra garatzen ari den proiektuetara zuzentzen dute euren laguntza. Baina horrek ez die bestelako laguntza ekimenean sartzea oztopatzen.

Antzuolako Elkartasun Taldeak ez du oraindik bere estatutuen ofizialtasuna jaso. Baina berdin da. Oraintsu herrira etorri den Iturriozko abadeari laguntzen jarraitzea da euren helbururik nagusia. Horrela diote euren estatutuek: "Hirugarren Munduan lanean diharduten antzuolarrei laguntzea euren proiektuetan, beharrezko dirua lortuz eta Antzuolako herria proiektu hauen partaide eginaz".

Jose Jabierrek gogoratzen duenez, "orain dala urte batzuk Juan Antoniori bere lanian zela konpontzen zan galdetu gontsan, eta errekurtsio gutxi eta gaizki konpontzen zala esan zoskun. Kotxiakin batera eta bestera juateko gasolinatarako dirurik ez eukitzeagaittik, lanik ezin eginda gelditzen zala. Geuk kuadrillan sakondu egin giñuan eta lehenengo ideia izan zan, hamahiru lagunon artian aportaziñuak egittia. Gero, Antzuolan egon zeikiela jentia projektuan interesata eta, kontu korronte bat zabaldu giñuan".

Hori 1992an izan zen eta hasi zirenetik 8 milioi PTA bidali dizkiote, Brasilerara. Geroago Udalaren laguntza eskatzea

erabaki zuen lagun taldeak eta orain, herriko beste elkartasun talde batzuekin elkartzea erabaki dute. Jose Jabierrek dioenez GKE bihurtzea erabaki dute "bakoitza bere aldetik ibiltzia baiño hobe dalako batera juatia. Herri txikixa da hau eta alkartasuna zatitzen hasi ezkeru...".

Mari Kontxi Laskurain Ruandaren aldeko taldean ibili da lanean. Berak ere beharrezkotzat jotzen du elkartzea: "sentsibilizaziño aldetik zeozer egin nahi giñuan eta billera bat antolatu giñuan beste GKE batekin. Billera haren ondoren han bildu giñanak berbetan gelditu giñan eta alkarrekin jarraitzea erabaki giñuan. Dana dala, lehendik be bageunkan alkarrekin lan egin izanaren espe-

rientzia. 1994an, eta Balkanetako gerra zala eta, herriko alkartasun taldeak hainbat hamabostaldixa antolatu giñuan. GKE bezela jardutia ofizialtasun bere emotiatgaittik izan zan. Gaiñera udako txian diru bat eskaintzen jakue hola erakundiei eta hori aprobetxauta, eta erulaguntza eskaera hori egin ahal izateko, GKE bihurtzia erabaki dogu".

Pare bat urte lanean aritu ondoren sortu da *Anelkar*. Kutxan irekita dute kontu korrontearen zenbakia honakoa hau da: 21010166130010189405. Bertzen den dirua Juan Antonioi jasotzen du Brasileko banketxe batean eta bertan duen guztietan herritarrei bere proiektuetan berri ematen die. ■



Antzuolako jaietan egin zen elkartasun jai

■ ■ ■

Hirugarren Munduan lanean diharduten antzuolarrei laguntzea du helburu *Anelkar*ek


■ ■ ■

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 77

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 78

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu



Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko zentruak (HHI-EPA) 15 urte daramatza lanean. Aurtengo ikasturtean 140 ikasle inguru ari dira Irizar jauregiko ikastetxean. Sarri askotan gaztetan ikasteko aukerarik ez izan edota aukera hori behar bezala aprobetxatu ez zuten ikasleak izaten dira. Helduen ikastetxeak bigarren aukera bat eskaintzen die eta, ikasteko irrikaz, liburu artean primeran moldatzen dira.

Helduen heziketa: inoiz ez da beranduegi ikasteko

Euskal Autonomi Erkidegoko HHI zentroetan 17.000 ikasle ari dira aurtengo ikasturtean. Gipuzkoan horrelako 14 ikastetxe daude. Bergarako HHI zentroa 1983-84 ikasturtean jarri zen martxan, San Martin ikastetxeak gaurko Ipintza Institutuaren ondoan zituena eskola prefabrikatueta. Garai hartan 42 ikaslerekin jarri zen martxan eta gaur egun 140 lagun ari dira Irizar jauregiko geletan. Irakaskuntza ofiziala eta doanekoa eskaintzen da bertan. Aurtun 8 talde osatu dira eta, horrez gain, gela bat dago Antzuolan Bergara-

ko ikastetxearen menpe, Oñatin beste hiru eta Sorraluzen, berriz, sei gela dira. Aurtun, nobedade gisa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak jarri dira eta horrek ikasle kopuruaren gorakada ekarri du.

Oro har, hiru izaten dira helduen zentroetara joateko arrazoiak: kultura maila handiagoa lortzeko gogoia, etxean hutsunea nabaritzen dutenen jendea ezagutzeko nahia edota langabezian egotea (HHI zentroetan ari direnen %44 langabezian dago edota dirusaririk gabeko lana egiten du). Bergaran ikas-

ten ari direnen artean 25-55 urtekoak dira nagusi eta gainontzeko zentroetan gertatzen den moduan emakumeen gehiengoa nabaria da. Gaspar Delgado elgoibartarra dugu Bergarako HHI zentroko zuzendaria. Bere ustetan, "azken urteotan 45 urtetik 60 urtera bitarteko ikasleen kopurua handitu egin da. Gehienak emakumeak dira. Sarritan, seme-alabak kanpora ikastera joan edo ezkondu egin zaizkie eta etxean hutsunea igartzen dute, seme-alabei dedikatuta bizi izan direlako. Baina oraindik ikasteko edo ikasitakoa gogoratzeko

adinean daude eta horrela, gainera, aktibo mantentzen dira. Euren zatia terapia moduko bat da hona etortzea; ikasteaz gain, jendea ezagutzeko aukera daukate eta horrek beste ate batzuk zabalitzen dizkie”.

MAILA EZBERDINAK

Helduen zentroak ez dira eskola graduatua lortzeko ikastetxeak.

Egoera bestelakoa da gaur egun. Eskola graduatua desagertu egin da dagoneko baina, hala ere, hori lortzeko ahaleginetan ari direnei 2002 urterarte azterketara aurkezteko aukera emango zaie. Gaur egun, esan bezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak ematen dira eta horrez gain maila ezberdinak daude: alfabetatzea (irakurtzen eta idazten ez dakitenei zuzenduta), irakurketa eta idazketa sakontzeko maila edota kultur zabalkuntza (eskolatik pasatu baina maila baxua dutenei zuzendutakoa). Ikasle gazteenak DBH ikasketetan ari dira. Bestalde, irakasleek klaseak euskaraz emateko gaitasuna izan arren, aurten ez da euskarazko talderik osatu.

Miren Gurutze Aranak urte dexente darama helduen heziketan lanean. Berak azaldu digunez, “DBHko ikasketak berriak direnez, aurten jende gazte asko etorri da eta aurretik gure ikastetxean graduatutako hainbat ikasle itzuli egin dira, euren ikasketak sakontzeko aukera ikusi dutelako. Normalean titulua ateratzera etortzen diren ikasleek, gehienez, hiru bat urte ematen dituzte gurekin. Kultur zabalkuntzan ari diren etxekoandreak, berriz, urteetan egoten

DBHko ikasketak ematen dira Helduen Heziketa Iraunkorreko zentruan. Beste maila batzuk ere badaude: alfabetatzea, sakontzea eta kultur zabalkuntza

nabarmenena interesa da, ez duzu jendea motibatu beharrik. Izugarritzko go-go dute ikasteko; umeak, aldiz, motibatu egin behar dituzu. Helduen kasuan bigarren aukera bat izatea bezala da; beraiek kontatzen dutenagatik as-

dira. Yogara apuntatzen diren moduan, guregana etortzen dira eta autoestima lantzeko primeran datorkie. Azken batean, ikasteak ez dauka amaierarik...”. Irakasleek helduekin lan egitea oso esker onekoa dela diote. Maria Angeles Padilla ere gaztetxoei klaseak ematen ibilitakoa da eta aldea sekulakoa dela diosku; “diferentziarik

kok ez zuten ikasteko aukera handirik izan, beste batzuek ez zuten jarri behar besteko interesik..., denetik dago”. Miren Gurutzek esaten duen moduan, “asko orain konturatu dira ikastea zein inportantea den eta beraientzat sekulakoa aurkikuntza izan dela esaten digunez. Bestalde, klaseak beste era batekoak dira gaur egun eta irakasle eta ikasle arteko harremana desberdina da, helduen arteko harremana azken batean”.

ELKARTRUKAKETA

Ikasleak helduak izan arren, ikasteko zailtasunik ez dute izaten. Miren Gurutzeren hitzetan, “beharbada ez dute izan ikasteko nahi beste aukera baina esperientzia handiko jendea da, bizitzari buruz asko dakiena. Jakinduria kultural zabala dute eta horrek ikasteko orduan asko balio du. Guretako elkar-



B e r r i z e r e u

M. KARMEN BARRENETXEA-ARANDO

Nire kabuz etorri nintzen eskolara, 1993-94 ikasturtean. Gaztetan ez zitzaidan gustatzen ikastea baina gero bai, gustoa hartu diot. Ikasteko ez da sekula berandu. Hiru seme-alaba dauzkat eta erreleboka ari naiz lanean. Hemen amaitutakoan ez daukat ikasten jarraitzeko aukerarik; momentuz nahikoa daukat DBHko titulua lortzearekin. Dena den, administratibo adarrak nahiko erakartzen nau. Orain lanarekin-eta denboraz justu samar ibiltzen naiz. Bestalde, ikasteaz gain, hona etortzeak lagunak egiteko balio izan dit. Eskola 14 urterekin laga nuen, orduko zertifikatua atera ondoren. Handik gutxira, Enseñantzan administratibo ikasketak jarri zituzten eta nik ez nuen ikasteko aukerarik izan. Orain, berriz, oso gustora nabil. Ikasteagatik ordaindu egingo balidate... Honelako zentroetan konstantziak asko balio du.

ARANTXA EGIBAR

Aurten langabezian nago eta hona etortzea erabaki nuen. Urtea ikasteko aprobetxatu nahi nuen eta euskalgegia ere banabil, EGA titulua ateratzen dudana. Ikasten jarraitu nahi nuke, baina ikusi egin behar lana ematen dena. Erizain ikasketekin probatuko nuke beharbada edo graduatu soziala bestela. Pixkat behartuta laga behar izan nuen eskola, 14 urterekin, sekulako penarekin eta ikasketekin jarraitzea bete gabeko gogoa nuen. Hau oso esperientzia ona izan da orain dela 10 urte eskola graduatua ateratu nuen eta ikasteko eta erakusteko metodoak ere asko gustatzen zait. Orain, langabezian nagoenez, denbora beharrezko ondo datorkit baina motibazioa ez da bestekoa da. Zailtasunik? Esaldien analisia, sintaktikoak egitea ez zait batere gustatzen eta matematikak, berriz, orain 10 urte baino errezago hartzen ditut.



Aurten 140 ikasle ari dira HHI-EPA ikastetxean. Maria Angeles Padilla eta Miren Gurutze Arana irakasleek urte dexente daramatzate helduen heziketan lanean.

trukaketa moduko bat da: guk beraiei gauzak erakusten dizkiegun moduan, beraiekin ere asko ikasten dugu. Eta zailtasunei dagokienez, hasieran igual kostea egingo zaie ikasgaien martxa har-

tzea, baina interesak erreztasuna baino garrantzi handiagoa dauka eta zailtasunak dituztenean, ba, orduan, ordu gehiago emango dituzte ikasten eta emaitzak etorriko dira lehenago ala ge-

roago. Beheko mailetan irakaskuntza personalizatua egiten da. Lasaitasunez, azalpenak ondo bereganatzen dituzte. Bestalde, irakasleak jakin behar du talde dinamika egokia sortzen".

Zentroaren publizitaterik onena, hain zuzen, ikasleek beraiek egiten dute. Maria Angeles Padillaren arabera, "asko animatu izan dira etortzera lagun edo ezagunen bati hemen ibili dela entzun eta gero. Beldurra eta lotsa gainditu behar dute aurretik, baina askotan seme-alabak dira hona etortzera animatzen dituztenak". HHI zentroan ikasketak amaitu ondoren ikasten jarraitzea nekeza izaten da, "unibertsitaterako pausua oso handia delako. Baina badira erizain laguntzailea edo administratibo ikasketak egiten dituztenak. Beste gutxi batzuk ere ibili dira UNEDen, baina sistema zeharo ezberdina da. Hemengo giroa familia artekoa da eta irakasleak gainean dituzte denbora guttian. Askok gustora jarraituko lukete ikasten baina gertatzen da lanean ari direnek, adibidez, ez daukatela aukerarik kanpora ikastera joateko eta beharbada hemendik beste zentro baterako saltoa handiegia gertatzen zaie". **B**



urru artean...

GUILLERMO GARCIA

Aurretik 1990-91 ikasturtean ibili nintzen EPA n eta eskola graduatua atera ondoren, aurtten DBH titulua lortzeko asmoz itzuli naiz. Sorraluzeko tailer batean ari naiz lanean eta etorkizunean kontrol numerikoa edota mekanika ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake. Zenbat eta hobeto prestatuta egon, hobe. Hamabost urterekin eskola laga eta lanean hasi nintzen. Erdi ahaztuta neuzkan gauzak ikasten hastea ez da erreza izan hasieran, baina berehala hartzen diozu martxa. Egutero bi orduz etortzen naiz eta klasean talde majoa daukagu.

Nire eskolako garaiekin alde ederra dago; orduan behartuta ikasi behar izaten genuen, irakaslearen beldurrez eta hemen giroa guztiz ezberdina da, ikasteko giroa askoz lasaiagoa da, ikastea atsegina da. Pentsa, orduan *Cara al sol* eta horrelakoak abestu behar izaten genituen...

MILA LARRAÑAGA

Senarra eta biok ibilitakoak gara EPA n eta aurrekoan postgraduatu ezin izan nuen bukatu, kurtsu erdian laga behar izan nuelako. Lagun batek animatuta etorri nintzen orduan. Aurten berriz etorri naiz. Ikasteko go-goa neukan eta etxean ere animatu naute. Taldeak zerikusi handia dauka gustora sentitzeko eta esan behar da irakasleek ere sekulako pazientzia dutela gurekin. Ni legazpiarra naiz eta 4. mailara arte eskola publikoan aritu ondoren, gurasoek monjetara bidali ninduten baina han ez nintzen gustora ibili eta 8. maila amaitu ondoren utzi egin nion ikasteari. 15 urte daramatzat Bergaran bizitzen eta orain lana eta DBHko ikasketak tartekatzen ditut. Goizez etortzen naiz klase- ra. Gustora nago eta segitzeko asmoz. LOGSE egiteko aukera baneuka... sekundariako bigarren zikloa egitea gustatuko litzaidake, ondoren karreraren bat ikasi ahal izateko.



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Amilotx-Mo(ko)lotov
10:00: HHH-Moskis
11:00: SLP-Buya

Moskis
SLP
HHH

ZAPATUAN KANPOAN

18:00: Ezinleike-Xurrupek
19:00: Pagomendi-Ortzi

Ortzi
Ezinleike

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Txipiron-Guadalest
10:30: Tom Cat Argandolas-Artusamak
11:30: Bildurbarek-Mongatxurrak
12:30: OH Zerezos-A Ze Flaxa Etxagi
16:00: Errotagain-Bar Canalejas
17:00: Shaktale-Azpeitxi Jatetxea
18:00: Bayer-Usoa
19:00: FAC-Arbe Kiroalak
20:00: Uve Bikoitza-Sirimiri Eri

Tom Cat
Txipiron
A Ze Flaxa
Bildurbarek
Azpeitxi
Canalejas
FAC
U. Bikoitza
Arbe

DOMEKAN KANPOAN

09:30: Patatus-Igandekoak
10:30: Etengabe-Patxaran Team
11:30: Komando Piperrak-Ari Ari
12:30: Matxakategi-Ufala
16:00: Agirrebeña Jatetxea-Urrutxurtu
17:00: La Juve-Amozkibar
18:00: Pinturas Bergara-Ion Autoak

Jakina PT
Ari Ari
Matxakat.
K. Piperrak
Amoskibar
P. Bergara
La Juve

argi!

Argi ibili behar duten taldeak

Lehendabiziko jardunaldia talde askorentzat ez da nahi eta espero bezala hasi. Maila guztiak kontuan izanda 18 talde izan dira puntu bakarria egitea ere lortu ez dutenak. Beste bi taldek, berriz, puntu bakarria eskuratzea lortu dute.

sailkapenak

1. maila

	P	J
1. Errotagain	23	11
2. Azpeitxi Jatetxea	22	11
3. A Ze Flaxa Etxagi	20	11
4. Pagomendi	19	10
5. Ortzi	17	11
6. Bildurbarek Opel/Lam	12	11
7. Mongatxurrak	11	11
8. Bar Canalejas	10	10
9. Jauja OH Zerezos	9	11
10. Shaktale	7	11

2. maila

	P	J
1. Artusamak	6	2
2. Arbe Kiroalak	6	2
3. Tom Cat Argandolas	4	2
4. Xurrupek	4	2
5. FAC	4	2
6. Sirimiri Eri	3	2
7. Ezinleike	3	2
8. Bayer	3	2
9. Txipiron	1	2
10. Guadalest	0	2
11. Uve Bikoitza	0	2
12. Usoa	0	2

3. maila

	P	J
1. Jakina Patxaran Team	6	2
2. Moskis	6	2
3. Ari Ari	6	2
4. Etengabe	3	1
5. Urrutxurtu	3	1
6. Irubide Jatetxea	3	2
7. Agirrebeña Jatetxea	3	2
8. Ufala	0	2
9. Komando Piperrak	0	2
10. HHH	0	2
11. Matxakategi	0	2

4. maila

	P	J
1. La Juve	6	6
2. Amozkibar	6	6
3. Mo(ko)lotov	6	6
4. Igandekoak	4	4
5. Buya	3	3
6. Pinturas Bergara	1	1
7. Ion Autoak	1	1
8. Agiriñasi	0	0
9. SLP	0	0
10. Amilotx	0	0
11. Patatus	0	0

jokoz kanpo



JESUS MARTINEZ
Ufala

G. Zenbat urte txapelketan?
E. Ez dut ondo gogoratzen, baina 8 edo 10.
G. Nola zoazte sailkapenean?
E. Ez oso ondo. Bigarren mailan egoteko maila daukagula uste dut, baina ez da zorterik izan. Hirugarren mailan gaude.
G. Zer dela eta Ufala izena?
E. Txapelketan hasi ginenean Etxenagusia izenarekin jokatzeko genuen, baina duela urte batzuk koadrilako bati Ufala bururatu zitzaion. Ufala izenak, uholde esan nahi du. Taldeko ia guztiak koadrilakoak gara; dena dela, beti dago joan edo etortzen den norbait.
G. Zein postutan jokatzeko duzu?
E. Aurrear.
G. 1etik 10era zure taldearen puntuaketa.
E. 6
G. Arauekin ados?
E. Bai, ados bai, baina arau finkoak mantendu beharko lirateke aldaketarik egon ez dadin.
G. Txapelketak hobera egin du?
E. Ez hobera eta ez txarrera. Dena dela, taldeen banaketa egiteko sistema aldatu eta play off-ak kendu egingo nituzke.

gora eta behera



Gol ugari zapatuan

Bigarren itzuliko lehen jardunaldietan gol ugari ekarri zuen. Gol kopuru handien zapatuan izan zen. Jakina Patxaran taldeak am taldeak, esaterako, 12 gol egin zituen Komando Piperraren kontrako partiduak eta Ion Autoak eta Agiriñasi taldeak 11 gola egitea lortu zuten.



A Ze Flaxak berriz ere kale

Bigarren astez, lehen mailan fabrikatzaile artean zegoen A Ze Flaxa Etxagi taldeak gora egin zuen. Oraingoan, Azpeitxi Jatetxearen kontra, 2-3. Ondorioz, A Ze Flaxa Etxagi lehen postutik 3.era pasatu da.

emaitzak

Buya-La Juve	13
Mo(ko)lotov-Patatus	63
Jakina Patxaran Team-Komando Piperrak	102
Matxakategi-Ari Ari	13
Igandekoak-Pinturas Bergara	44
Ion Autoak-Agiriñasi	84
Ortzi-Bildurbarek Opel/Lam	61
Azpeitxi Jatetxea-Mongatxurrak	53
Amozkibar-Amilotx	54
Ari Ari-HHH	81
Mongatxurrak-Jauja OH Zerezos	21
Moskis-Matxakategi	74
Ufala-Agirrebeña Jatetxea	14
Urrutxurtu-Irubide Jatetxea	61
Txipiron-Bayer	21
Artusamak-Usoa	61
A Ze Flaxa Etxagi-Azpeitxi Jatetxea	23
Errotagain-Shaktale	43
Arbe Kiroalak-Ezinleike	21
Xurrupek-Uve Bikoitza	21
Eri Sirimiri-Tom Cat Argandolas	24
Guadalest-FAC	24

kronikak


**Futbola
Kadeteak
igotzeko
bidean**

BKEko futbol saileko kadeteek sekulako gol zaparrada lortu zuten joan zen asteburuan. Aranbururen mutilak Mutrikuren kontra aritu ziren joan zen domekan Ipintzan. Lehendabiziko zatia oso parekatua izan zen baina bergarar gazteek partidua eueganatu eta golak etorri ziren.

Lehen zatian hiru eta bigarrenen beste hiru gol lortu zituzten. Gol hauen egileak, Iban, Julen, Luke eta Martin izan ziren. Ibanek eta Julenek bina gol egin zituzten. Mutrikuko gazteak indartsu azaldu baziren ere, Aranbururen teknika fina eta joko hobea erakutsi zuten eta, ondorioz, errez aurre egin zieten kontraerasoei.


**Eskubaloia
Garaipen
erreza**

Iraundi eskubalo taldeak 16-23 irabazi zuen joan zen astean Mutrikun. Partidu erreza eta eroso izan zen bergararentzat. Partidu osoan zehar Iraundi aurretik joan zen. Lehendabiziko zatia 8-12 amaitu zen Lijoren mutilen alde. Bigarren zati osoan zehar aurretik mantentzea lortu zuten 23 gol egitera helduz.

Une honetan, bergararrak zazpigarren daude sailkatuta eta Mutrikuko taldea azkenengo postuan dago. Partiduko golegile nagusia Bergarako Asier Arana izan zen 10 golekin. Lijorenak Ligako bigarren itzulia jokatzen ari dira eta entrenatzaileak adierazi duenez, helburua Kopa jokatzea izango da.


**Saskibaloia
Bikain,
bikain!!**

Bolsos Bergara saskibalo taldeak norgehiagoka paregabea jokatu zuen joan zen asteburuan eta lehendabiziko postuan dagoen Leioako taldeari 57-68 irabazi zion. Alex Familiarren taldea, hiru jokalarri garrantzitsuren faltan abiatu zen, hori dela eta esperantza handirik gabe joan baziren ere, zeharo gainditu zituzten leioarrak.

Begararrak partidu osoan zehar aurretik joan ziren 3 eta 4 puntuko abantailarekin baina partidua amaitzeko hiru minutu falta zirela bolada ederrari heldu eta alde handitza lortu zuten. Bergararren artean, Jordi Prat eta Mikel Etxeberria izan ziren gehien nabarmendu ziren jokalarriak.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Mutriku

Neskek
Zapatua. 15:30. Ipintza

Bergara-Urki

Bigarren mailako jubenilak
Zapatua. 17:15. Ipintza

PILOTA

Bergara-Eskoriatza

2. mailako seniorrak
Eguakitza. 20:30. Pilotalekua
PROFESIONALAK

Euskal Herriko Txapelketa

- Alustiza eta Patxi Ruiz
Unanue eta Errasti

2. mailako Euskal Herriko

Txapelketa. Finala

- Koka eta Barriola
Barberito VI eta Zearra

Banaka

- Tirapu-Nalda III
Zapatua. 17:00. Pilotalekua

SASKIBALOIA

Bergara-Quiser Orio

Senior maila
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Bergara-Irongo Lagunak

Jubenil mailako mutilak
Zapatua. 12:15. Kiroldegia

Bergara-Intxaurren

Jubenil mailako neskek
Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-Aldapeta

Kadete mailako neskek
Domeka. 12:15. M. Lagundia

ESKUBALOIA

Bergara-Goierri

Jubenil mailako neskek
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Bergara-Beasain

Jubenil mailako mutilak
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

JON SANCHEZ / Futbol jokalaria

"Selekzioa, esperientzia handia da"

16 urte ditu eta bigarren urtez Eibarreko taldean ari da arrelari bergararra. Deba Garaiko selekzioan, Euskadikoan eta Espainiako aurreselekzioan ere izan da. Euskadiko selekzioarekin Zaragozan izan den txapelketatik etorri berri da eta esan digunez, zorte txarra izan dute, aurkariek ez dute eta maila berezirik erakutsi.

G. Burukomin handiak ematen ditu horrenbeste konbokatoria izateak?

E. Ez. Esperientzia zoragarria da. Zaragozan izan dugun bezalako txapelketetan, esaterako, asko ikasten da. Zoritxarrez, Gaztela-Mantxa eta Asturiasen

kontrako partiduetan ez genuen zorte handirik izan. Martxoan bigarren itzulia dator eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

G. Zer dela eta Eibarrera?


E. BKEn izan nuen entrenatzaileari eta Eibarreko begiraleari esker. Eibarreko taldean jokatzeak aukera gehiago ematen ditu, baina gogorra da egunero bertara joatea. Herrian bertan jokatzeak bere abantailak ditu. Dena dela, momentuz Eibarren jarraitzeko asmoa daukat.

G. Zela zoazte saikapenean?

E. Bergarako lehen mailako jubenil taldearen atzetik. Oso denboraldi ona egiten ari dira. Taldean dagoen giroari esker dela esango nuke.

G. Zorte handia izan duzu.

E. Bai. Joan zen urtean Euskadiko selekzioarekin partidu guztiak jokatu nituen eta orain arte nire taldean titularra naiz. Espainiako aurreselekzioan ere izan nintzen Madrilen, azkenean aukeratu ez ninduten arren.



Etxaniz, Zezeaga eta Elkoro binakako txapelketarako gertu


Asegarceren txapelketako 3 partidu Bergaran jokatu dira

Joan zen eguakitzean aurkeztu zen Gasteizen binakako pilota txapelketa. Enpresa eta federazioen arteko ez-ulertzeak direla medio, txapelketan izango diren bakarrak Aspeko pilotariak dira. Hauen artean Etxaniz eta Zezeaga bergararrak eta Elkoro elgetarra.

Binakako txapelketan Aspeko sei bikotek jardungo dute elkarren kontra: Eugi eta Santi, Olaizola I.a eta Elkoro, Capellan eta Berna, Titin eta Goñi III.a, Goñi II.a eta Zezeaga eta Etxaniz eta Lasa. Buelta bakarra izango duen liga honetan, lehendabiziko lau bikoteak sailkatuko dira finalerdietarako.

ELKORO ETA ETXANIZ FAVORITOEN ARTEAN

Bikoteak parekatuta daudela diote komunikabideek baina, hala ere, faboritoak



Etxaniz eta Elkoro iaz txapeldun orde geratu ondoren, aurtan ez dira elkarrekin arituko binakako txapelketan. ARTIBAR

Etxaniz eta Lasa eta Olaizola I.a eta Elkorok osatzen dituzten bikoteak dira. Txapelketan pilotari asko falta-

ko da eta hauen artean Unanue eta Errasti izako txapeldunak. Txapelketaren inguruan komentario asko en-

tzun da eta guztiak bat dutoz esaten dutenean kalitate handiena jarriztaile eta pilotariak izango dutela.

Txapelketaren inguruko iritzia pilotarien eskutik

JOKIN ETXANIZ

"Esperantza handiak ditud. Sei bikoteak maila beretsukoak gara eta txapelketa polita izango delakoan nago. Hala ere, Titin eta Goñi une onean daudela uste dut. Lehendabiziko helburua lau bikoteen artean sailkatzea izango da eta gero ikusi behar. Bikotekide ona tokatu zait eta pozik nago. Lasak arazoak izan zituen baina orain ondo dabil. Nik neuk, arazoak ditut eskuetan eta kezkatzen nau".



JOSE MARI ZEZEAGA

"Pilotari gaztea izango dut lagun. Goñi II.ak zeresan handia emango du etorkizunean, baina oraindik gaztea da eta gauza asko ditu ikaste-ko. Dena dela, bakoitzak bere jokia egiten badu lan polita egiteko aukera daukagu. Bikoteak nahiko parekatuta daude eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Nire ustez, Etxaniz eta Lasa eta Titin eta Goñi III.a dira oreka gehien duten bikoteak".



AITOR ELKORO

"Txapelketa ez dugu espero bezala hasiko, gure partidua eskuan izan ditudan arazoak direla eta atzeratu baita. Bikotekide gaztea izango nuela banekien. Txapelketa polita egiteko aukerak ditugu eta sorpresak izango dira. Darrak parekatuta daude baina Etxaniz-Lasa eta Titin-Goñi III.a bikote sendoak dira. Txapelketaren inguruan gertatutakoa ez zait inongo iruditu kaltetuak zaleak izan baitira".



Gogoratu dezagun, 1992.ean ere antzeko arazoak izan zela orduko enpresa eta pilota federazioen artean. Orduan, enpresa tradizionalak txapelketa paraleloa antolatzea erabaki zuten eta ofizialean parte hartu zuten bakarra, orain kanpogan gelditu den Asegarce izan zen. Enpresas Unidas-ek antolatutako txapelketan Jokin Etxaniz eta Jose Mari Zezeagak eskuratu zuten txapela, Bergarako Udal Pilotalekuan bertan.

Bestalde, aste honetan jakin denez, txapelketa as-teburuan hasiko den arren, Elgoro eta Zezeagak ez dute lehendabiziko partidua jokatzerik izango. Arauek ez dut aurreikusten partidua atzeratzea, benetan arrazoi pisutsua ez bada, behintzat; hala ere, Aspek partidua hauek atzeratzea eskatuko dio federazioari. Etxaniz eta Lasak, bestalde, Capellan eta Bernaren kontra jokatuko dute.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA ERE ABIAN

Asegarcek, bere aldetik, Euskal Herriko binakako txapelketa antolatuko du eta partidua horiek Udal Pilotalekuan ikusteko aukera izango da. Lehen itzulia as-teburu honetan bertan hasiko da. Bergarako frontoian Alustiza eta Patxi Ruiz, Unanue eta Errastiren kontra neurtuko dira. Partidua Tele 5 kateak emango du zuzenean. Lehen fasean Bergaran jokatu den txapelketako hurrengo partidua hilaren 30ean izango da, Unanue eta Errasti eta Ariznabarreta eta Arretxeren artekoa. Azkenak, otsailaren 2rako iragarri dute. Honetan, Salaberria eta Armendarizek Ariznabarreta eta Arretxeren kontra jokatu dute. Jaialdi hau ere Tele 5 kateak eman- go du zuzenean. **18**



Senior taldekoak indartsu daude zapatuko partiduari aurre egiteko

Bolsos Bergarak igoera faserako sailkatzeko aukera erabakiorra

Bolsos Bergara saskibaloia taldeak partidua garrantzitsua jokatu du zapatuan Orioko Quiserren kontra. Lehen postuan sailkatuta dagoen Leioako taldeari irabazi ondoren, bergararrek garaipena lortzeko aukera handiak dituzte. Bi taldeak laugarren daude sailkapenean. Bergarak partidua hau irabaziz gero, eta gelditzen direnak azkenaurrenaren eta seigarrenaren kontra jokatu dituztela kontutan izanda, Igoera fase-

rako sailkatzeko aukera ugari izango luke, bigarren edo hirugarren postua eskuratuko luke eta. Alex Familiar Bolsos Bergarako entrenatzaileak adierazi digunez, "partidua interesgarria eta, era berean, erabakiorra izango da zapatukoa. Zortea eta jarraitzaileen babesa izaten badugu, partidua aurrera aterako dugulakoan nago". Gainera partidua honen emaitzak eragina izango du bigarren itzuliko sailkapenean.

ESKOLA KIROLA. Karteldegia

FUTBOLA

Infantil mailako mutilak
09:45: Aranzadi- M. Lagundia
11:15: Ipintza DBH-Kurtzeberri
Zapatua, Ipintzan

ESKUBALOIA

BENJAMIN MAILA:
10:00: M. Lagundia E-Aranzadi 3
11:00: San Martin A-Antzuola A
12:00: San Martin B-Aranzadi 4
10:00: Antzuola B-M Lagundia A
11:00: Aranzadi 2-Aranzadi 1
12:00: M. Lagundia B-M. Lagundia D
Zapatuan Aranzadi Ikastolan
 (Atsedena Aranzadi 6 eta Aranzadi 5)
INFANTIL MAILAKO MUTILAK:
12:30: S.FCO. Xabier-Aranzadi
Zapatua, Musakolan. Arrasate

INFANTIL MAILAKO NESKAK:

10:00: Txan D.B.H1B-Aranzadi
Zapatua, Olaiturrin. Oñati

SASKIBALOIA

ALEBIN MAILAKO NESKAK:
11:30: M. Lagundia-Aranzadi 15
12:30: Aranzadi 14-San Martin
12:30: Antzuola-Elgeta
Zapatuan, M. Lagundian
ALEBIN MAILAKO MUTILAK:
09:30: Aranzadi 10-Aranzadi 12
09:30: M. Lagundia B-Antzuola
10:30: Aranzadi 8-Aranzadi 13
10:30: Aranzadi 11-Elgeta
11:30: Aranzadi 9-M. Lagundia A
Zapatuan, M. Lagundian
INFANTIL MAILAKO MUTILAK:
11:30: Rompehuesos-Aranzadi
Zapatua, Zubikuan. Oñati

Muru eta Errasti Elgoibarko San Antoneko finalean

Iker Muruamendiaraz eta Errasti Elgoibarko San Anton sariko finalera iritsi dira. Joan zen eguakitzean, Elgoibarko txapelketako final laurdenetan Yañiz eta Balerdi II.ari 22-11 irabazi ostean, finala jokatze-ko sailkatu ziren.

Finala, gaur, eguakitzean, izango da, gaueko 22:00etan, Elgoibarko pilotalekuan eta bertan Saralegi eta Iparragirrenen kontra jokatu behar-ko dute.

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Osintxu. 943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 21 63.

Osintxu. 939 93 68 41.

Pisu amueblatua San Antonion. 943 76 56 20.

Pisu amueblatua Basar- ten. 943 76 32 90.

Aranerreak. 943 76 06 52.

S. Arrieta. 943 76 47 86.

Bolu. 943 76 01 80.

Basarte. 943 76 32 91.

Iraburu. 943 76 30 72.

Aranerreak. 943 76 50 79.

Matxiategi (garajeare- kin). 943 76 08 51.

S. Lorentzo. 943 76 48 39.

ERRENTAN HARTZEKO

Bi neska pisu bat har- tuko genuke alokairuan Bolun: 943 76 56 03.

Pisua hartuko genuke alokairuan: 945 46 58 36.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ETXE KONPARTITUAK

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran. 943 76 17 93.

2. GARAJEAK

SALDU

Garaje bikoitza S. Lo- rentzon: 943 76 58 00.

Garajea saldu edo alo- katzen da. 943 76 40 03.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Aranerreak. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

Garajea saldu edo alo- katzen da. 943 76 40 03.

B. Laskurain. 943 76 47 86.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Boni Laskurain. 943 76 17 84.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 27 22.

Ibargarain salgai edo alokairuan. 943 76 20 07.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poli- gonoan. 943 76 21 12.

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Poligonoa. 943 76 21 12.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

100 m²ko lokala aloka- tzen da Kruz Gallaste- gin. 943 76 11.

Taberna-jatetxea alo- kairuan. 943 76 41 71/ 76 37 80 (gauze).

4. LANA

ESKAINZAK

Emakumea etxez etxe plantatzeko eskaintzen da. 943 76 26 73.

Neska haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo lituzke. 943 76 26 82/76 57 34.

Neska batek, goizez, haurrak zaindu edo etxe-ko lanak egingo lituzke. Deitu 943 76 46 07 telefonora.

Esperientziadun neska batek helduak zaindu lituzke. 943 76 32 18.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 26 38.

Erizain titulatuak garaiak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxeke lanak egin edo umeak zainduko lituzke egun erdiz. 943 76 26 38.

Neska etxeke edo sukaldari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neska batek, goizez, haurrak zaindu edota etxeke lanak egingo lituzke. Deitu 943 76 72 31 telefonora.

ESKAERAK

Umeak zaindu eta etxe-ko lanetarako pertsona bat behar da. 943 76 26 50 (21:00etatik aurrera).

ARDATZA
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak

Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

CAMACHO
Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

Mujika
gozalar



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK
MOKETA ETA SINTASOLA
IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK
HAREA ZORROTADA
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

PANA DE ROKUA
TATEJ XEAL

Asteburuetan bertan
babak eta sabieskiak

SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Filolojia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Lizentziatuak mate, fisika, kimika. 943 76 70 40.

Majisteritza diploma-tuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Lizentziatuak enpresaritza lehen mailako matematika klaseak ematen ditu. 943 76 32 31.

Majisteritzako ikasleak OHOKo klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. maila arte. 943 76 32 93.

Lizentziatuak italiara klaseak eman edo itzulpenak egingo lituzke. 943 76 65 24.

6. BILGAILUAK

SALDU

Ford Scort 1100 kotxea

salgai. SS-U. Bolante deportiboa doan. 125.000 pezeta. 943 76 39 57 (Julian).

Peugeot 306 (SS-AV) salgai. 943 79 78 32.

Ford Escort XR3 egoera onean. 943 71 44 45.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Opel Corsa 1500 diesel. SS-AT. 943 78 71 12.

Ford Sierra (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

Alfa 33 QV (BI-AM) kotxea salgai. Ondo ekipatua. 943 76 07 50.

7. ANIMALIAK

SALDU

Pedigree oneko artzai aleman txakurkumeak salgai. 609 40 75 07.

Bi hilabeteko pertsa katurkumeak salgai. Deitu 943 76 17 49 telefonora.

Boxer txakurkumeak. Txertatuak eta pedigree-arekin. 943 85 32 44.

BESTELAKOAK

Txakur bat oparitzen dut. 943 76 23 83.

8. DENETARIK

SALDU

Sega Saturn bideo kontsola salgai. 6 joku. 943 76 40 00 (Mikel).

Ordenagailurako CDa, sonu tarjeta eta bozgorailuak. 943 76 06 29.

Peugeot 309 kotxeko aluminiozko haginak salgai. 930 687 635.

Eskiko materiala salgai: Dynastar taula, Tyrolia lotzekoak, Koflach botak (44-45 zka.) eta bas-toiak. 943 76 25 54.

Bigarren eskuo soinua. 943 76 47 76.

Super Nintendo (2 mando eta 3 joku). 94 658 31 87.

Buelto tresilloa (tapi-zatua). Ia berria. 943 76 12 86.

Pentium-multimedia ordenagailua, inpresora eta programak salgai. 907 34 46 58.

Bi oheko gazte logela

salgai. 943 78 25 85.

Super Nintendo (5 joku) salgai. 943 76 49 38.

Armairu klasikoa salgai. 943 76 10 94.

Pentium 120 ordenagailua salgai. 943 76 28 34.

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Botoidun akordeoia salgai. 943 76 32 95.

Bizikletendako bi gupil berri 155/70 haginakin eta orekatuak. 6.500 pta.943 76 32 31 (Iñaki).

EROSI

Faxa erosiko nuke. 943 76 61 15.

GALDU

Guante bat galdu nuen Bergaran Gabon aurretik. 943 76 61 15.

9. HARREMANAK

KONTAKTUAK

65 urteko gizonezko batek emakume bat ezagutu nahi luke harreman serio bat hasteko. 943 76 30 27.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MEKANIKO INJINERUA
Bilbo. 14566/4

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
Ibaizabal. 14985/3

INJINERU TEKNIKO ELEKTRONIKO BI
Arabar Lautada. 15207/1

ABAP-4 PROGRMATZAILAK
Arabar Lautada. 15611/1

SUKALDARIAK ETA LAGUNTZAILEAK
Fuenteventura. 15415/1-15417/1

ZERBITZARI LAGUNTZAILEA
Taberna-kafetegia Deba Garaia. 15558/4

OPTIKOA
Fuenteventura. 15419/2

NAZIOARTEKO TRAFIKO GESTIOA
Bidasoia Behea. 15460/2

LH ELEKTRIKOA
Daba Behea. 15490/6

TAILER ARDURADUNA
Ibai ezkerrekoa. 15684/5

TORNULARIA
Arratia-Nerbioi. 15711/1

INDUSTRI INJINERU BI
Deba Garaia. 15227/2

MEKANIKARIA
Bilbo. 15271/3

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

SUKALDERAKO GARBITZAILEA

behar da

Tf. 943 76 41 06

3 hilabeterako TABERNARIA

behar da

Tf. 943 76 05 09

SUKALDELAGUNTZAILEA

behar da

Tf. 943 76 72 00
11:00-15:00

IKUSBI

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar

Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21



Gozogintzan aintzindari.

Gaur jarriko da abian Kartzela Zaharrean Jardunen "Bergara ezagutzen" lehiaketa

Lehiaketa eguakitzero egingo da eta martxo amaierara arte luzatuko

**Gaur jarriko da abian Jardun Elkar-
tearen "Bergara ezagutzen" lehia-
keta. Gaur hasi eta martxoaren 12ra
arte, zortzi astetan, Bergarari buruz-
ko hainbat arlo landuko dituzte
lehiaketara aurkeztu diren 14 eta 17
urte arteko neska-mutilek.**

Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletako eta Ipintza institutuko bederlatzi talde arituko dira lehian: Aranzadi ikastolako bost, Mariaren Lagundiko hiru eta Ipintza institutuko bakarra. Talde bakoitza 15 lagunek osatuko dute: 2 aurrelari, 2 atzelari, jokoia egiteko 3 lagun eta gelako 8 laguntzaile. Lehiaketa eguakitzean Kartzela Zaharrean egingo da.

Txapelketa bi fasetan jokatu da gaur hasi eta otsailaren 26ra bitartean eta, ondoren, finalerdiak (martxoaren 5ean eta 12an) eta finala (martxoaren 26an) izango dira. Lehen fasean, bederlatzi taldeak arituko dira lehian eta bi kanpoan geratuko dira. Gaur, lehen jardunaldian, Eztakit, Jotapurtu eta Hik Galdeu taldeek jardungo dute elkarren kontra; datorren eguakitzean, berriz, Eli, Zerok eta Gotxusek eta otsailaren 22an Petu Petuan, Katamixartsua eta Errastiklasek.

BERGARARI BURUZKO GALDERAK

Lehiaketaren helburua, jolasteaz eta ondo pasatzeaz gain, ikastea da. Bergarako euskara ondo erabiltzen ikasteko balagarria izan daiteke eta baita herriaren ezaugarri orokorrak eta datu interesgarriak berenganatzeko, informazio


iturriak non dauden ikasiz. Horretarako, hainbat galdera erantzun beharko dituzte partehartzaileek: Bergarako euskara, geografia, natura, ekonomia, kultura, historia, artea eta kirolari buruzkoak. Talde bakoitzari 15 galdera egingo zaizkio, atal bakoitzetik 3 galdera. Bestalde, proba grafikoak ere izango dira: jartzen zaien argazkia identifikatu, bertso edo esaera zaharra asmatu eta plano edo mapako lekua identifikatu beharko dute. Azken proba jokoia izango da: aurkezleak emandako datuen arabera, zerbait topatu beharko dute taldeek herrian zehar; horretarako 20 minutu izango dituzte.

Aste bakoitzean taldeek lortzen dituzten puntuen arabera eratuko da sail-

kapena. Sariak, finalerdietara eta finalera heltzen direnentzat izango dira. Talde peldunek astebukaera bat pasatu behar dute aterpetxe batean natur-kirolariak praktikatzen eta besteek kamisetak erakutsi behar dituzte.

Proba guztietan aurkezlea, hainbat laguntzaile eta epaimahaia izango dira. Aurkezle lanetan Izaro Aperriz, Mireia Larrañaga eta Asier Elortza izango dira.

"Bergara ezagutzen" lehiaketa martxoaren 12an hasi eta martxoaren 26an amaitzeko herriko hainbat taldeak parte hartuko dituzte eta pertsonaren laguntza izan dute jardun elkartekoek. Galdera sorta prestatzeko, esaterako, arlo bakoitzean aurkeztuak diren hainbat herritarrek lagunduko die. **B**




Besteak beste, argazkien bidez herriko leku interesgarriak identifikatu beharko dituzte lehiakideak

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74



Amillaga, gasolindegian ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETA
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txikiak
Kazolatxoak / Txabierrak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

erreseinak



Amaia Elozegi eta
Esther Mugertza
Txirringaren aienean
Bidaia liburua

Amaia Elozegi eta Esther Mugertzak urte sabatiko hartu eta gure gizar-tearekin hain ezberdina den Asiako herrialdeetan barrena murgildu ziren bizikleta gainean. Abentura horretan bizitako pasadizoak kontatzen dizkigute liburuan. Herrialde musulmanetatik, hinduista eta budistetara egin zuten bidea. Karakorumeke ne-gu hotzetik tropikoko bero eta heze-tasunera, Kurdistango gerratetik Indiako ispiritualitatera, Irango une zoragarrietatik Txinako inpernura... beti pedalei eraginez. Peio Ruiz Cabestanyk idatzi du hitzaurrea.

- Txalaparta. 365 orr. 1.950 PTA



Urtz
Lur gazian ametsak ereinez
Heavy-rock

Laugarren disko honetan heldutasuna atzematen zaie pasaiatarrei. Aurreko lanen ildo beretik jo dute, baina soinu eta melodia berriei ireki dizkiete ateak oraingoan. "Lur gazian ametsak ereinez" honetan ohiko heavy melodikoa aurkituko duzue, baina baita estilo honetan hain ohikoak ez diren erritmoak ere. Pop-ari keinu bat egin diote "Aitzakia" kantuan eta erritmo azkarragoak ere landu dituzte. Luxuzko kolaborazioak izan dituzte gainera: Alaitz eta Milder, Sorotan Beleko Gorka, Asier Gozategi... Nerabeendako musika.

- Gor. 2.475 PTA



Adur Ezenarro ordiziarrak eraman zuen iaz lehen saria "Serora" izeneko lanarengatik.

Berreundik gora karta jaso dira Amodiozko gutunen lehiaketan

Eguaztenean amaitu zen Amodiozko Gutunen VII. Berrigara Lehiaketara lanak aurkezteko epea eta 202 gutun jaso dira. Datozen egunotan posta bidez bidalitako lan gehiago jasoko dituzte Jardunekoek Kartzela Zaharrean. Azken edizioetako karta kopururik handiena bilduko da aurtengo lehiaketan.

Jardunek urtero antolatzen duen amodiozko eskutitzen lehiaketa Euskal Herriko garrantzitsuen bilakatu da eta oihartzun handia izaten du komunikabideetan. Aurten honako hauek osatuko dute epaimahaia: Juan Martin Elexpuru idazleak, Andoni Egaña bertsolariak, Jasone Osoro idazle eta kazetariak eta Garikoitz Berasaluze Egunkariako literatura kritikoa. Bestalde, irakurle gazteek emandako sarian honako

hauek arituko dira epaile lanetan: Erika Iturbe (Aranzadi Ikastola), Garikoitz Garitano (Miguel Altuna) eta Nerea Aiestaran (Ipintza institutua). Mariaren Lagundiko ordezkaria oraindik izendatzeke dute.

Sari banaketa ekitaldia San Balentin egunean izango da, otsailaren 14an, eguerdiko ordu batean Kartzela Zaharrean. Aurten Karnabal domeka tokatzen da. Saria jasotzen dutenek euren eskutitzak irakurriko dituzte Soka boskotearen laguntzaz eta Edurne eta Josune bikote kantaria ere izango da; ondoren sariak banatuko dira. Gogoratu dezagun, 75.000 eta 40.000 pezeta eramango dituztela bi gutun onenen egileek eta Bergarako onenak 25.000 pezetako saria jasoko duela. Irakurle gazteek emandako saria, ostera, Xabier Diaz de Zerrioren eskultura bat izango da.

Garnish
Bitxitegia

% 20, 30, 40
deskontuak

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Olerki bat banatzen duten lerro multzoak. 2. Salaketa egin. Erne! 3. Gizaseme gazte. Toka, dut. 4. Sailak. Egia. 5. Errepikatuz, gorotza. Basoko landarea. Fosoforoa. 6. Ikuzi aditzaren infinitiboa. Hizki grekoa. Egile atzizkia. 7. Zu zeuk. Nitrogenoa. 8. Utik! Jardun. Sortu zintuena. 9. Toka, naiz.. Zein modutan. 10. Akitu aditzaren infinitiboa. Ibarra.

Goitik behera

1. Asmakaria. 2. Hautatzearen ondorioak. 3. Ipar., halere. H:O. Interjekzioa. 4. Barrea eragiten digutenak. 5. Mapen bilduma. Kontsonante bikoitza. Hidrogenoa. 6. Lutezioa. Txerrixoen oihua. 7. Kontsonantea. 500. Bibliako pertsonaia. Zakur. 8. Trebea. Arrantzagunea. 9. Bibliako pertsonaia. Kontsonantea. Irlandako irla. 10. Kitatzearen ondorioa. Bokala.

Soluzioa

10. Kitapena. A.
9. Adan. L. Man.
8. Moze. Or. 8. laioa. Kala.
7. Hotes. Rk. H. 6. Lu. Kurrra.
6. Altea. Ur. U. 4. Pailazoak.
5. Kankaxuna. 2. Hautaketak.
4. Goitik behera.
3. Irak. Nola. 10. Aki. Harana.
2. Zorroak. N. 8. Ur. Ari. Ama.
1. Asmakaria. P. 6. Ikuz. Ro. Le.
2. Morte. Diate. 4. Aialak. Oña.
1. Hapaxitak. 2. Salatu. Adri.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar

Zein da Aritzeta auzoan dagoen baserri honen izena?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Mekolalde** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Begoña Gomez**entzat izan da. Zabala jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Begoñari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Bidekurutzeta kalea**
Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

MEKOLALDE
Jatetxea

Mekolalde z/g
Telefonoa: 943 76 50 18

Mikel Fernandez "Pope" (35 urte) aski ezaguna da Bergaran, batez ere aretoko futbolaren alde egiten duen lanagatik. Gaur egun nesken taldeko entrenatzailea da. Zazpi urte inguru darama Orni lantegian lanean.

Zergatik "Pope"?

Koadrilako guztioi P-arekin hasten ziren goitizenak jarri zizkigutelako: Patxuli, Pete, Polo, Paisa... eta niri, Pope.

Futbola ala futbitoa?

Orain futbitoa; futboleant ez dago espektakulorik gaur egun.

Jokatu ala ikusi?

Lesioengatik ezin dut jokatu.

Zer behar du entrenatzaile on batek?

Jokalariak ulertzen eta euren akatsak zuzentzen saiatu behar da.

Teknika ala indarra?

Biak. Futbitoan teknika garrantzitsuagoa da; futboleant, berriz, indarra.

Entrenamenduak ala partiduak?

Entrenamenduak, partiduetan sufritu egiten delako.

Aulkian nerbioak kentzeko zer?

Chupa-chupsak jatea.

Taktikak zenbateko garrantzia dauka?

Izugarria; ezinbestekoa da jokatzeko sistema bat baino gehiago ezagutzea.

Zure taldearen gauzarik onena?

Ikasteko duten gogo.

Eta txarrena?

Batzuetan haserretu eragiten didatela.

Neskak ala mutilak entrenatzen gustorago?

Neskak, ikasteko gogo gehiago dutelako eta disziplinatugoak direlako.

Zer esango zenieke futbola

gizonezkoa dela esaten dutenei?

Mikel Fernandez

Guztiek dutela jokatzeko eskubidea eta zenbaitetan neskek mutilen pareko maila daukatela.

Miresten duzun entrenatzaile bat?

Cruyff eta Miljanic.

Futbol talde bat eta jokalaria bat?

Osasuna eta Pele.

Txikitan zer izan nahi zenuen?

Futbolista.

Lanbidez aldatzekotan, zer?

Dekoratzaila.

Besteengan gehien apreziatzen duzuna?

Umiltasuna.

Emakumeengan zertan fijatzen zara?

Lehenbizi aurpegian.

Zure bertute eta defektu bat?

Bihotz onekoa naizela; defektua, nerbioek jan egiten nautela.

Zerk jartzen zaitu sutan?

Gauza bat esan eta kaso ez egiteak

Zelako musika atsegin duzu?

Folk-rocka.

Filme bat?


"El expreso de medianoche".

Idazle bat?

Isabel Allende.

Beherapenetan erosketarik egin duzu?

Ez. **B**



DANI LASKURAIN



margo-erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

San Miguel

barnealdean dekorazioa

Banaketa eta dekorazio proiektuak etxebizitza eta merkataritza lokaletarako



Gremioen koordinazioa

San Lorentzo 4, Posta kutxa 250. 20570 Bergara. Tf. 943 76 47 90. Faxa: 943 76 01 15

Kizkur



Ileapaindegia

Estetika

Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



San Ferminetan, 1946

Orain dela 42 urteko San Ferminetan aterako argazki honetan Bergarako lagun koadrila bat agertzen zaigu. Iruñera autoetan joan eta han elkartu ziren festa ospatzeko. Iruñeko alde zaharrean, kalean argazkiak ateratzen diren horietako baten aurrean (itxura denez, Felix zuen izena) ipini eta "klik" betiko inmortalizatu zituzten.

Urte hartako San Ferminetako oroigarri gisa etxean gorde dute beste argazki batzuekin batera eta aste honetan Erretratu Zaharrean

erakusten dizuegu. Bertan agertzen direnak ezkerretik hasita (batzuk hilda daude):

Zutik: Alberto Basterretxea, ezezaguna (parrandan zebiltzala Iruñean eurekin elkartutako bat), Ramon Valencia "Beltza", Felix Berraondo, Luis Mari Lonbide eta Esteban Arieta leanizbeaskoa "Uritxa".

Makurtuta: Jaime Miota eta Jabier Ormaiztegui.

Argazkia: Felix Berraondo

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituztu, zatoz!

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAI

Tf. 943 71 24 25

zabaldu berria!



BEROTZI
PELUQUERAS



itziar, rosa, begoña eta eva

dutxadun solariumetan azkena daukagu!

A. FLEMING 5 BERGARA TF. 943 76 53 15

Bergarako Udal Euskaltegia

MATRIKULALDIA ZABALIK

Alfabetatze, euskalduntze eta EGA ikastaroak (otsaila-ekaina)
Plazak dauden taldeetan integratzeko



IZENA EMATEKO EPEA

Urtarrilaren 18tik 29ra.
16 urtez gorakoendako

BULEGO ORDUTEGIA


Goizez: 08:30-12:30
Arratsaldez: 14:30-19:00

**Bekatzeko sistema
eta diru-laguntzak daukagu!**

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13 • BERGARA • Tf. 943 76 44 53 • Posta elektronikoa: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

centro hogar MUEBLES



a, eme interiores

sukaldea



Sofa
leku

GRUPO
M
Amuebladora
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE
Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791498